

GIZARTERATZEAREN ALDEKO BORROKAREN ERRONKAK

Euskadiko pobrezia eta giza bazterketaren aurkako erakundeen iritzi artikulu –bilketa.



GIZARTERATZEAREN ALDEKO BORROKAREN ERRONKAK

Euskadiko pobrezia eta giza bazterketaren aurkako erakundeen iritzi artikulu –bilketa.



Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin

Red europea de lucha contra la pobreza y la exclusión social en Euskadi

European anti poverty network in the Basque Country



Egilea:

EAPN EUSKADI

Venezuela Plaza, 1, 2. ezk-ezk

48001 Bilbo

Telefonoa: 94 416 18 94

www.eapneuskadi.net

Diseinua eta maketazioa: Luis Gómez García

HITZAURREA

Ohore handia da niretzat Euskadiko gizarteratzearen aldeko borrokaren erronkei buruzko EAPN-Euskadiren txosten kualitatibo honetan parte hartzea. Gizarteratzearen aldeko eta gizarte-bazterkeriaren aurkako lana Arartekoaren lehentasunezko helburuetako bat da. Aukera hau baliatuz, zorionak eman nahi dizkiet pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako sarea osatzen duten erakundeei. Ezagutzen ditugu Europako sare hori osatzen duten euskal erakundeak eta bidezkoa da ordenamendu juridikoaren eta giza eskubideen sistemaren printzipioak eta oinarriko eskubideak betetzeko eta zaintzeko beharrezkoak diren baldintza egokiak aurkitzeko egiten duten lana nabarmentzea.

Urduritasun eta larritasun garaiak dira. Gure bulegoetara egindako bisiten bidez, posta elektronikoz edo telefonoz iristen zaizkigun eskaerek (batzuetan sorospen-eskaera larriak) erakusten dizkigute krisiaren ondorio larriak. Pobrezia-egoerak, gizarteratik baztertuta egoteko arriskua eta ezegonkortasuna izugarri ari dira areagotzen lana edo etxebizitza (edo biak, etxebizitza galtzea lana galtzearen ondorioa baita) galtzeak eraginda. Horrez gain, bizi dugun egoerak eta etorkizun hurbilerako aurreikusitako ziurgabetasun ilunak eraginda, gizarteratik azkar ari dira urduritasuna, beldurra, kezka eta adorea falta zabaltzen. Horren ondorioetako bat da xenofobia eta gizarte laguntzak jasotzen dituzten etorkinekiko gaitzespena ere areagotu egin direla, nahiz eta legea aplikatzeak, eskubide konstituzionalen bermeak eta oinarriko giza printzipioen defentsak ideia eta jarrera horiek errotik kentzea ekarri behar lukeen.

Krisia finantza-sistemaren hainbat arduradunek eta kudeatzailek eragin dute eta orain, modu zikinean, haien gehiegikerien eta espekulazioen ondorio izugarriak konpontzeko ardura agintari politikoaren gain utzi nahi dute eta agintari politiko horiek Euroguneko herrialdeetan ez dute jakin, edo ez dute nahi izan, zorrak eta defizit publikoak izugarri murriztea besterik egiten, finantzaketa-arazo larriak daudelako eta finantza-sistemaren arduradunek sortu dituzten neurritz kanpoko zor horiek, zuzenean edo mailegu edo berme bidez, estatuak ari direlako haien gain hartzen. Oso deigarria da finantza-sektore pribatura diru publikoaren transferentzia masibo horiek egiteko ez dagoela mugarik, esan digutenaren arabera, ezin baitaie finantza-erakundeek porrot egiten utzi. Aldi berean, gizarte zerbitzuak etengabeko murrizketak jasaten ari dira eta esaten digute ez dagoela dirurik horiek ordaintzeko eta, gainera, lanpostuak abiada biziari ari dira galtzen, enpresa eta langile autonomo askok porrot egiten baitute finantzaketa faltagatik edo finantza-sistemaren minbiziak ekoizpen-ekonomiari, lanaren eta ahaleginaren poderioz eta ez espekulazioaren bidez modu artifizialean lana eragiten duen horri ere eragin diolako. Gure demokrazietan zerbaitek lehentasuna izatekotan justizia eta berdintasun soziala, gizarteratzea eta kohesio soziala zaintzeak eta pobrezia eta gizarte-bazterkeria desagerrarazteak izan behar dute. Hori bai dela benetan sistemikoa eta, horregatik, eztabaidaezina izan behar du, oinarrian Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoaren printzipio eta eskubide oinarrikoenak baititu.

Ararteko osoa, atal guztiak eta batez ere gizarte-bazterkerian dauden edo arriskuan dauden pertsonen arloa eta erakundearen barnean lan egiten duen haur eta nerabeen bulegoa adore handiz lanean ari gara guregana jotzen duten milaka pertsonari laguntza eta orientazioa eskaintzeko eta herri-administrazioei kexa-espeditenteen ebazpenen, gomendio orokorren, ezohiko txostenetako gomendioen edo ofiziozko informazio-espeditenteen bidez eskatzen diegu haien jarduera eta politika publiko guztiak arduratsuak eta eraginkorrak izan daitezela kostatuta gure gizarteratzeari eusteko. Ondoren, gure lanarekin lotutako edo gure lanaren ondorio diren hainbat gai azpimarragarri nabarmenduko ditut.

Jasotako kexak aztertuta konturatu gara herri-administrazioek oso zorrotz jokatzeko dutela prestazio ekonomikoak ematen dizkieten pertsonen eskakizunak aztertzean. Zorroztasun hori deigarria da, prestazio ekonomikoak jasotakoak zalantzan jarri dituztela ikusita, iruzur-egoerak, prestazioak horretarako eskubiderik izan gabe jasotzen dituzten pertsonen kasuak, oso gutxi izanik, izapidetu ditugun kexa-espeditenteen arabera.

Garrantzitsua da gizarte zerbitzuetako profesionalek egiten duten lana behar bezala neurtzea eta duen balio sozialagatik, duten inplikazioagatik eta profesionaltasunagatik aitortua izatea. Botere publikoei prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenak ez iraintzeko ere eskatu behar diegu.

2012an, Lanbidek hartu du Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta kudeatzeko eskumena bere gain. Lehen hilabeteak oso zailak izaten ari dira atzerapenak sortzen ari baitira eta hainbeste espeditente kudeatzea oso zaila baita. Espeditente horien kudeaketan inguruabar asko izan behar dira kontuan. Espeditente horiek, askotan, dituzten gizarte-zailtasunengatik laguntasun soziala behar duten pertsonen eragiten die. Jasotzen ari garen kexak atzerapenekin eta kudeaketarekin daude lotuta batez ere, baina erabiltzaileek jasotako arretari eta prestazioak eteteko eta berriro abiarazteari buruzkoak ere ari gara jasotzen. Sumatutako gabeziak 2012an pixkanaka konpontzea espero dugu.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioa eteteko erabiltzen den prozedurari buruz hausnartu egin behar da, oro har beste diru-sarrerarik ez duten pertsonen bizitzan dituen eraginengatik. Herri Administrazioek (Lehen Foru Aldundiak eta orain Lanbide) prestazioa ordaintzeari uzten diote zerbait betetzen ez denean, baina ez da bereizten betetzen ez dena betebeharrak bat edo eskakizun bat den edo iruzurra gertatu den eta jarrera horietako bakoitzarentzako gaitzespena oso desberdina da. Kasu guztietan prestazioak eten beharrean zigor-prozedura bat erabiliko balitz, jarrera modu bidezkoago batean egokitu ahal izango litzaike zigorrari eta ez lirateke familiak sarrerarik gabe utziko haien egoera ekonomikoan eraginik ez duten betebeharrak (esaterako, administrazioari 15 eguneko epea igaro ondoren komunikazioa egitea) ez betetzeagatik. Garrantzitsua da, halaber, administrazio-prozedura erabaki guztietan errespetatzea; gure ordenamendu juridikoak pertsonen aitortzen dizkien eskubideak errespetatzea, alegia, eragiten dien prozedura guztietan defendatzeko eskubidea izatea, esaterako. Horregatik, beti egin behar da entzunaldi-izapidea eta erabakiak behar bezala arrazoitu behar dira, beste berme batzuen artean.

Diru-sarrerarik ez duten familiek eskatzen duten prestazio ekonomiko kopuruaren igoera zuzenean dago lotuta familiako kideak lanik gabe egotearekin. Lehenetsunezkoa da herri-administrazioek arazo handi hori konpontzeko lan egitea eta lana sortuko duten jarduera ekonomikoak sustatzeko neurriak hartzea. Era berean, lanpostuak izan ditzaketan lan-arloetako trebakuntza ere sustatu egin behar da. Sektore garrantzitsu eta berritzaileetan

trebakuntza eskaintzeak ere lagunduko luke lana sortzeko premiazko betebeharrak hori sustatzen.

Pertsonen kezka nagusia bizi diren etxetik botatzea da. Milaka asko dira etxea kendu dieten edo etxetik botatzeko prozeduraren batean dauden pertsonak eta familiak. Pertsona horiek gizarte-erakundeetara eta gizarte-zerbitzuetara jotzen dute lana edo prestazio edo laguntzaren bat eskatzeko. Jende asko egunero saiatzen da horretan eta etsi egiten dute, ez baitute lanik topatzen eta ez baitute bizitzeko beste baliabide ekonomikorik.

Gizarte-gastua, une honetan, ezinbestekoa da bizi dugun egoerari ikuspegi humanitariotik eta elkartasunez begiratzen badiogu. Hori horrela, enfasia ez zaio gastu ekonomikoari jarri behar, gastu horren inbertsio sozialaren neurriari baizik, horri esker, familia osoak, askotan seme-alaba adingabeak dituztenak, bizimodu duinaren mugan bizi baitira, gizartetik baztertuta gelditu gabe; izan ere, baztertuta gelditzeak zaildu egingo lieke ondoren berriro gizarteratzea (gizarte-bazterkeriak bazterrean gelditzea eta osasun-arazoak ekar ditzake eta zaila da hortik ateratzea egoera luzatzen bada). Lehenetsuzkoa da gizarte-politikek komunitateari ekartzen dizkion onurak ebaluatzea eta emaitzak hedatzea. Gizarte-gastuari ematen zaion tratamendua, askotan, ez dator bat errealitatearekin. Gizarte-politikek lana sortzen eta ondasunen eskaria sortzen laguntzen dute eta prebentziozko izaera dutenez, beste gastu batzuk ekiditen dituzte (osasuna, segurtasuna...). Horregatik, gizarte-politikek pertsonen garapenean eta sustapenean inbertsioak egitea eskatzen dute, pertsonen sormenaren potentziala baitute eta hori funtsezkoa da aurrera egiteko eta gizarte-kohesioa lortzeko. Gizarte-gastuetan murrizketak egiteko neurriek ondorio larriak ekarri dizkiete gizartetik baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan daudenei eta ulertarazten dute gastu publikoa, eta bereziki gizarte-politiken gastua, dela oraingo egoera ekonomikoaren eragilea eta hori, guztiz gezurra da.

Itxaropenezko hitzak esan nahi ditut amaitzeko. Benetan uste dut elkartasunaren eta anaitasunaren balioak, gizakion duintasuna babestearen balio gorenari lotuak daudenak, gailendu egingo zaizkiela miseria moralari eta arduragabezia lotsagarriari. Horiek izan dira bizi dugun hondamendiaren arduradunen jarreraren gidari. Sinesmen edo itxaropen hori ematen dit uste sendo batek; uste osoa dut Europako herritar gehienek demokratikoki defendatuko dutela gizarte- edo ongizate-estatua osatzen duen eraikuntza historiko handia, europarra, eta horri lotutako gizarte-eskubideak. Eta lanean, borondatezko gizarte-lanetan dena ematen duten gizon eta emakume askoren idealetan eta egunero mundu bidezkoago eta gizatiarrago bat eraikitzean ere oinarritzen dut uste sendo hori.

Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

AURKIBIDE

AURKIBIDE	1
HITZAURREA: Erakunde sozialek krisiaren aurrean egin beharreko aldaketak	
Jose Manuel Fresno (Aholkulari Soziala)	3
1. Europako pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeria.	
Sian Jones/EAPN EBko politiken koordinatzailea	5
2. Laugarren Europa. Carlos Susias. EAPN-ESko presidentea	7
3. Giza Eskubideak oparoaldirako soilik al dira?	
Maribé Garay Taybo. ADSIS Fundazioa	10
4. Beharrezkoa dena egia bihurtzea.	
Fabiola Moreno. AmiArte Elkartearen presidenteordea.....	12
5. Itsasoko ura gazia da. Cristina Ojanguren. Gizarte Ekimeneko Agintzari Kooperatiba.....	14
6. Beti Gizartean Fundazioa – siempre en la sociedad -.	
M ^a Antonia González. Beti Gizartean Fundazioa.	16
7. Espetxea eta gizarte-bazterketa.	
Roberto Vidal Failde. Espetxeetako Pastoralgintzako Bidesari.....	18
Elkarteko gizarte-hezitzailea.	
8. Pertsonarekin berriz aurkituz. Pablo Ruiz. Bizitegi Elkarte.....	20
9. Pobrezia eta bazterketa egoeran dauden bakardadea. Caritas Bizkaia.....	22
10. Errefuxiatuen oinarrizko Giza Eskubideen urraketa bikoitza Euskadin. CEAR Euskadi.....	24
11. Zer egin behar dugu? Gurutze Gorria Euskadi.	27
12. Tratu txarrak jasandako baliabiderik gabeko emakumeak eta lagundu gabeko immigrante gazteak, etorkizun atsekabegarria. EDE Fundazioa.	28
13. Eta orain zer? Itxaso Bilbao. Elkarbanatuz Elkarte.....	30
14. Mari. Secretariado Gitano Fundazioa.	32
15. Heroiaren eginkizunaren antzeko zerbait. Cesar Coca. Gizakia Fundazioko patroia.....	34
16. Klean daudenak. Goiztiri Elkarte.....	36
17. Emakumeen bidea gizarteratzearen alde. Aitziber Bañuelos.	
Familia eta Emakumeen Gizarteratzeko Atala. Margotu Elkarte.....	37
18. Gizarteratze-lbilbideak Sendotzen. Peñascal Koop.....	40
19. Alda dezagun bidaia orria eta egin dezagun gurea. Rais Euskadi.....	42
20. 2011: oztopo lasterketa. Sartu – Zabaltzen Elkarte.	44
21. Esaten duten krisia egonagatik ere, beste gizarte zerbitzu batzuk izan ditzakegu.	
Arabako HIESAren kontrako Batzordea.....	46
22. Askatasunaz gabeko zigorra eta gizarte bazterketa.	
Arabako HIESAren kontrako Batzordea.....	48
23. Emakumea, immigrazioa, artea: ikusezinaren ikusezinaren ikusezina...	
Helena González Sáez (GARABATAZ). Zubietxe Arte Tailerreko Arduraduna.....	50
24. Parte hartzea gizarteratzeko tresna. Parte Hartuz Elkarte.....	52
GIZARTERATZEAREN ALDEKO BORROKAREN ERRONKAK EUSKADIN.	
EAPN Euskadi.....	54

AURKEZPENA

2010. urtea Pobreziaren eta Gizarte-bazterketaren aurkako Europako Urtea izan zen; Lisboako Agenda delakoan Europako Batzordeak garatutako planean 2000-2010 hamarkadan egindako lorpenak ebaluatzeko urte garrantzitsua izan zen. Planaren helburu estrategikoa Batasuneko ekonomia eraldatzea eta honako hau bihurtzea zen: *“munduko ezagutzaren ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea 2010a baino lehen, hazkunde ekonomiko iraunkorrerako gai izango zena, eta enpleguaren aldeko hobekuntza kualitatiboa eta kohesio sozial handiagoa ahalbidetuko zituena”*. Ebaluazioak, ordea, helburu hori oraindik egia bihurtzetik urrun zegoela erakutsi zuen.

Hori dela eta, EBk eta kide diren estatuek Gizarteratzeko 2010-2020 Europako Estrategian islatutako lehentasunezko hainbat helburu adostu zituzten eta EAPNk (pobreziaren eta gizarte-bazterketaren kontrako Europako sare den aldetik) Europa, estatu eta toki mailan modu aktiboan hartu du parte prozesuan. Estrategia horrek kide diren 27 herrialdeetarako hazkunde ekonomiko eta sozialeko eredia koordinatzea du jomuga, horietako bakoitzaren ezaugarriak eta hasierako egoerak kontuan hartuta.

Europa 2020 Estrategiak proposatzen duen helburuetako bat European pobrezia % 25 murriztea da (bere garaian pobrezia-tasarekin neurtutakoa); horrek pobrezia-egoeran dauden 80 milioi lagunetik 20 milioi lagunera murriztea esan nahi du. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Europar Batasunean 60 milioi lagunek pobrezia-egoeran jarraituko luketela.

Hori horrela, EBko kide den herrialde bakoitzak erreforma-programak¹ proposatu ditu, proposatutako helburu hori eta besteak erdiesteko asmoz. Zer gertatu da, ordea, 2010. urteaz geroztik?

2012ko urtarrilean, 2009. urtetik 2010. urtera arteko Espainiako pobrezia eta gizarte-bazterketaren Europako arrisku-adierazlearen jarraipena egiten zuen azterketa-dokumentua

¹ Ikusi Espainiako erreformen programa nazionala:
http://www.meyss.es/es/sec_trabajo/debes_saber/pnr/programanacionalreformas2011espana.pdf

argitaratu zuen EAPN Madrilek ² (Centro de Estudios Económicos Tomillo (CEET) zentroak argitaratutako azken datu estatistikoak, Madrilen). Estatu mailan pobrezia murrizteko xedeari dagokionez, 2009-2019 epean pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen kopurua 1.400.000 lagunetik 1.500.000ra murrizteko helburua finkatuko da (pobrezia- eta bazterketa-egoeran dagoen 9,1 eta 9,2 milioi arteko biztanleriara heltzea esan nahiko luke). Datu estatistikoaren arabera, aldiz, jomugarantz bideratu beharrean, aurkako alderantz goaz, 2009 eta 2010 arteko zifrek pobrezia eta gizarte-bazterketako arrisku-egoeran daudenen kopuruak milioi bat baino gehiago egin duela gora erakusten baitute (hain zuzen ere, 10.665.615 lagun 2009an eta 11.666.827 lagun 2010ean).

EAEko kasuan oinarrituta, txostenari jarraiki, hauek dira jasotako datuak:

	2009ko AROPE biztanleriaren %	2010eko AROPE biztanleriaren %	ARPE biztanleriaren %aren igoera (%)	ARPE biztanleriaren igoera (kop.)
Euskadi	% 12,60	% 15,60	% 3,00	63.927

Euskadi da oraindik ere AROPE biztanleria kopuru txikiena duen bigarren komunitate autonomoa (Nafarroaren atzetik, % 9,70eko AROPE biztanleriarekin egonkor jarraitzen duen bakarra da); hala eta guztiz ere, urtebetean pobrezia eta gizarte-bazterketa jasaten duen pertsona kopuruak % 3 gora egin izana deigarri gertatzen da eta horrek esan nahi du 63.927 lagun pobrezia eta gizarte-bazterketako egoeran erori direla edo erortzeko arriskuan daudela.

EAPN Euskadiko kide diren erakundeetako esku-hartze sozialaren esperientziatik abiatuta, 2011. urtearen berrikusketa kualitatiboa aurkeztuko dugu jarraian. 2011. urtean landutako pobrezia eta gizarte-bazterketako egoera esanguratsuenak zein diren erakusten duten iritzi-artikuluak eta 2012. urtean gizarteratzearen aldeko borrokan gainditu nahi ditugun erronkak biltzen dituen bilduma da.

EAPN Euskadi

² EAPN Madrilek egindako "Impactos de la crisis" dokumentuari eta 3 faktore neurtzen dituen Europar Batasunak proposatutako AROPE –At Risk Of Poverty and/or Exclusion ingelesezko adierazpenaren sigla– adierazleari egiten diogu erreferentzia: errenta, pobreziaaren atalasearen azpitik dagoen biztanleria (atalase nazionalarekin); gabezia material larria, kontsumo-aukerak; eta lanaren intentsitatea, etxebizitza bakoitzeko lan-intentsitate baxuko biztanleria.

SARRERA

Erakunde sozialek krisiaren aurrean egin beharreko aldaketak

Jose Manuel Fresno (Aholkulari Soziala)

ekonomikoaren ondorio larriez haratago doana, gizarte-ongizatearen ereduen berrikusketa eta argaltzea dakarten zerga-doikuntza bihurtuta.

Europako gizarteak aldatzen ari dira eta etorkizun hurbilean desberdinak izango dira ezinbestean: globalizazioak (gizarteen gero eta integrazio handiagoa mundu mailako merkatuan eta espazio-denborazko continuumaren kondentsazioa; horrekin munduko alderdi batean gertatutakoak ia berehalako ondorioak ditu munduaren beste aldean), Europako integrazio-proiektuaren krisiak lagunduta eta hazkunde eta botere polo geostrategikoen BRIIC (Txina, India eta neurri txikiagoan Brasil, Errusia eta Indonesia) delakoetarako desplazamenduekin, iraultza teknologikoak, komunikazioarekin eta informazioarekin zerikusia duenak bereziki ("aro digitala" delakoa) eta aldaketa demografiko azkarrak (migrazio-prozesuen intentsifikazioa eta biztanleriaren zahartzapena herrialde industrializatuenetan), pentsatzeko, jokatzeko eta bizitzeko modu berriak txertatzen dituzte, balio demokratikoak oinarrituta dauden zutabeak berak, herritarren jokaerak, hiritarra denaren zentzua eta partaidetza-kontzeptua eragiten dituztenak.

Espainiako kaosaren erdian, egiturazko desdoitze historikoei, behar adina garatu gabeko Ongizate Egoerari (kasu honetan salbuetsi dezagun Euskadi), askok eta askok porrot egiten duten eta lan-merkatuko beharrekin behar adina konektatzea lortzen ez duen hezkuntza-sistema desdoituari, gehiegi zatitutakoari eta gutxi dibertsifikatuari, desdoitze demografikoari... bereziki langabeziaren hondamendian adierazten den krisiaren ondorio larriak gehitzen zaizkio, eta aurreikuspen guztiei jarraiki, 2012. urtean areagotzen jarraituko du.

Gizarte-ekintzako erakunde askok, zerbitzuetan bereziki, erabiltzaileen igoerarengatik nabaritu zuten krisiaren eragina hasiera batean; 2011n aurrekontuaren doikuntzaren ondorioak hasi dira nabarmentzen hein handian, hortaz, funts publikoen mende dauden haiek gutxiagotatik gehiago egitera behartuta daude. Pixkanaka, neurri handiagoan edo txikiagoan, jorratutako alorraren arabera, nabarmenagoa egiten da zerbitzuen onuradunen profil-aldaketa ere; lehen ia guztiak bazterketa-egoeran zeudenak baziren ere, orain, klase ertainetik eta behe ertainetik datozen familia asko daude zaugarritasun-egoeran.

Aurrekontuen zorrotasunak, moda eta inposaketa nagusia denak, gizarte-babeseko sistemari doikuntza gehiago egitera behartuko du zalantzarik gabe. Ondo dakigu eta euskal esperientziak ondo erakutsi du babes-sistema egokia dela bazterketa saihesteko ezinbesteko baldintza eta horren aurkako antidotorik onena. Publikoa dena argaltzeko dinamika horretan, gobernuek

zerbitzuak privatizatzen, ordainketetan zatitze-neurriak sartzen... jotzen badute eta horiek izan ditzaketen ondorio desberdintzaileei aurre egiteko neurririk jartzen ez badute, dualizazio sozialaren areagotzearekin topa gaituzke eta horren ondorioz, bazterketa gehiagorekin.

Gizarte-ekintzako eta bazterketaren aurkako GKE-ek zer egin dezakete egoera horretan? Aldaketa-egoera horretan duten kokapenez eta jardura-estrategiaz pentsatzeko garaia da. Gutxienez, alderdi hauetan egitea iradokitzen dut:

1. Gizarte-politikaren alorrean hartzen diren erabakiekiko inoiz baino arreta gehiago eskaintzea eta horiei buruz kontsulta egiteko bat egitea, instituzionalizatutako benetako elkarrizketa zibila eskatuz.
2. Zerbitzuak sortuko diren behar eta eskaera berrien arabera berriro pentsatzea, zalantzarik gabe, soziala dena gero eta gizarte-hezkuntza, gizarte-osasun, soziokultural, gizarte-kirol, gizarte-lan, gizarte-ingurumenekoagoa... izango baita.
3. Aukera estrategikoak dibertsifikatzea, erakundeetan oreka eta heterogeneotasuna egoteko moduan, hirugarren sektoreak berezkoak dituen funtzioak estalita (salaketa eta errebindikazioa, sensibilizazioa, autolaguntza, partaidetza-kanala, zerbitzuen hornidura) eta sektorea funtzio horietako batera gehiegi makurtzea saihestuta.
4. Barne-lankidetzaren indartzea erakundearen artean eta kanpo-lankidetzaren beste eragile sozial publiko eta pribatuekin, politiken gunean egoteko xedearekin eta publikoa denaren eta merkatuaren posizio periferiko eta subsidiarioetara ez aldatzeko.

Ahaleginak areagotzeko garaia da, gako berrietan pentsatzekoa eta ez nork bere horretan jarraitzeko, baita galdera deserosoak egiteko ere, zentzu kritiko eta autokritikoarekin, eta nola ez, hirugarren sektoreari sendotasuna eragiten dioten eta balio soziala ekartzen jarrai dezan indarguneak identifikatzeko.

Laugarren Europa

Carlos Susias. EAPN-ESko presidentea

Krisiaren aurreko erantzun politikoez eta ekonomikoez Europa sozialaren oinarriari mehatxu egiten diete. Ongizatearen estatua finantza-merkatuaren interesak defendatzeko, ordainik gabeko esfortzu ekonomikoez gainkargatutako herritarren interesak defendatzeko baino interes handiagoa duen administrazio publikoaren bulegoko azken tiraderako utopia izatera igaro da “Guztion” onerako sakrifizioak egin behar ditugula entzuten da, baina **benetako orduan pertsona aberatsenek laguntza oparoak jasotzen dituztela ikusten dugu**. Etekinen garaian, sakrifiziorik egin ez dutenek laguntza horiek eskudirutan eta eskura nola jasotzen dituzten ikusten dugu eta, bien bitartean, egunero sakrifikatzen direnek etorkizunerako promesak jasotzen dituzte ordainetan. **Gerrikoa gehiago estutzea ezinezkoa da ito gabe**. Laugarren Europa prekarioa eta zaindu gabekoa hazten ari da murrizketa sozialen zurrumbiloan. Bi abiadurako EBk Europa mugiezinari eman dio bidea. Pertsona arruntak gero eta egoera prekarioagoan bizi dira, enpleguaren eta diru-sarreraren erorketaren ondorioz. Dagoeneko arazoa ez da hilaren amaierara heldu ezin izatea. Bada egunaren amaierara heltzen ez denik ere. Egoera horren aurrean, ordezkari politikoez **krisia eragin dutenen eskaerei erantzutera baldintzatutako jarduera-ildoak aukeratu dute**, hazkundearen eta ongizatearen bidea berreskuratzeko ustezko itxaropenarekin.

Eskakizun maximoaren testuinguru honetan, gizarte-erakundeek eta gizarte-ekintzako GKE-ek **irtenbiderako eragile proaktiboak izan behar dugu, elkarrizketarako zabalik daudenak, baina pertsona zaurgarrienen eskaerekin zorrotzak direnak**. Krisiak gehien eragindako pertsonak irtenbidearen parte dira. Zorroztasunaren beharraz jabetzen gara, “aukeren gaineratik” ez bizitzeaz, baina Legea bete beharraz eta iruzur fiskalaren aurka eta ezkutuko ekonomiaren aurka ausarki borrokatu beharraz ere jabetzen gara. Hau da, gaizkile fiskalak eta lanekoak jarraitzea eta argi izatea “aukeren gaineratik ez bizitze” horrek ordainketa eskandalagarri eta lizunak ez toleratzea biltzen duela (gutxien kobratzen dutenen soldatak kontrolatzeaz eta murrizteaz hitz egiten dutenei eman ohi zaizkienak). “Gure aukeren gaineratik ez bizitzeari” kontrajarrita dago, jakina, pobrezia-egoerak eta miseria-lanagatiko ordainketak ez ahalbidetzea. Hori dela eta, 2012an, berriro ere, arduradun publikoei eta eragile sozial eta ekonomikoei eskatuko diegu beren gain har ditzatela **balio ekonomikoak, politikoak eta sozialak, gizartearen baldintza utziezin gisa** eta euskarria, konpromisoa eta ekintza jarraitua eman diezaiotela pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokari. Ezin dugu beti nahi izan dugun Europa sozialaren porrota onartuko duen laugarren mundu isila onartu. Hortaz, **pobrezia murrizketa esanguratsuarekin konprometitutako eta onartutako helburua** bermatu behar dugu. Negoziatu ezin daitekeen baldintza da hori. Ildo horretatik, iraupen luze,

ertain eta motzeko **langabeziaren murrizketa esanguratsuan** baliabideak inbertitzen jarraitu behar dugu eta **desberdintasunaren arteko tartea itxi** behar dugu, gizartearen gero eta polarizazio handiagoa hazkunde inklusiborako eta leheneratze ekonomikorako funtsezko oztopoa dela ikusiz. Azkenik, EAPN-ESTik **gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen partaidetza esanguratsua** eztabaidetan maila guztietan bermatzeko lanean jarraituko dugu, estatu mailako parlamentuan eta baita parlamentu autonomikoetan ere, erabakiak hartzeko prozesuan **Europa 2020ko gomendio nagusiak** mahai gainean jartzeko.

Jakin badakigu gure lanak ez duela erreaktiboa izan behar eta ez dituela itzuliko ez diren garaiak etsipenez oroitu behar, Europako eta Espainiako herritarren ongizatea bermatuko duten proposamenak egin eta egituratu baizik. Horrek proposamen berriak, metodo berriak eta eredu berriak eskatuko dizkigu, baina herritarren ongizatera bideratuta, betiere. Zertarako balio digu Europa edo Espainia aberatsak, gehiengoa hala ez bada eta gehiengoa pobreziaren azpitik eta etorkizunik gabe badago? Gure esku dago denontzat bidezkoagoa izango den orainaren eta etorkizunaren alde lan egiten jarraitzea.

Europako pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeria

Sian Jones/EAPN EBko politiken koordinatzailea

1. Europako pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeriaren benetako egoera

Zaila da Europako pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeriaren benetako egoeraren berri izatea. Eurostatek 2012ko otsailean emandako azken datuen arabera, 2010ean, EBeko herritarren % 23 (115 milioi pertsona) pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran egoteko arriskuan zegoen. Hori adierazten du Europako AROPE (siglak ingelesez) adierazle konbinatu berriak. Europa 2020 Estrategiaren helburua babesten du; EBn pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden kopurua 2020rako 20 milioi lagunera murriztea, alegia. Adierazleak gutxienez ondorengo baldintzetako bat bizi duen herritarren multzoa adierazten du: 1) pobrezia-arriskuan egotea (hau da, batez besteko familia-errentaren % 60ren azpitik egotea), 2) material gabezia handia izatea³, edo 3) oso lan-intentsitate txikia duen familia batean bizitzea⁴. EB adierazle konbinatu berri hau dela eta, arreta pobrezia ETA gizarte-bazterkeria egoeran zeudenengandik pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran daudenengana bideratu da. Hor sartzen dira lanean pertsona gutxi izan arren pobreziarik edo gabeziarik ez duten familiak ere.

Adierazle berri honen arabera, pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan dauden gehienak Bulgarian (% 42), Errumanian (% 41), Letonian (% 38) eta Lituanian (% 33) daude⁵. Hala ere, datu horiek errealitate konplexuak dituzte atzean. Pobrezia arriskuan dauden pertsona kopurua egonkor dago % 16an. Tasa altuagoak dituzte, ordea, Letonian, Errumanian, Bulgarian eta Espainian (% 21ean daude horiek guztiak) eta baxuenak Txekiar Errepublikan (% 9), Herbeheretan (% 10), Eslovakian, Austrian eta Hungarian (horiek guztiak % 12an). Datu horiek adierazten dute batez besteko errentak behera doazela errentek eta soldatek behera egin dutelako, baina baita "diru-pobrezia-egoera gorakada moteltzeko" gizarte-transferentziek duten funtsezko zereginagatik ere⁶. Material gabezia handiaren adierazlearen arabera, oinarrizko beharrak asetzeko adina ez dutenen edo zerbitzu nagusiak eskura ezin ditzaketenen kopurua gorantz doa eta EB27ko % 8an dago. % 36 ez dira gai ustekabeko gastuei aurre egiteko (% 1eko gorakada 2009ko datuekin alderatuta). Datuak aldatu egiten dira batetik bestera; Luxenburgon eta Suedian % 1 eta Bulgarian % 35 eta Errumanian % 31. EB27ko 0-59 urteko

³ Ondorengo bederatzi puntuetatik gutxienez lau eduki ezin dituzten pertsona kopurua: 1) atzerapenak hipotekaren edo alokairuaren ordainketetan, zerbitzu publikoen fakturretan, epekako erosketetan edo beste mailegu batzuen ordainketetan, 2) urtean aste beteko oporrak etxetik kanpo; 3) haragia, oilaskoa edo arraina (edo horren baliokide begetarianoa) duen otordu bat bi egunez behin; 4) ustekabeko finantza-gastuak; 5) telefono bat (telefono mugikorra barne); 6) telebista koloretan; 7) arropa-garbigailu bat; 8) auto bat; 9) etxea behar bezain beste berotzeko berokuntza.

⁴ Lanaren intentsitatea kalkulatzeko, familian lan egiteko adinean daudenek lan eginiko hilabete guztien batura laneo hilabeteen baturarekin zatitu behar da.

⁵ Kopuruak EU-SILC inkestako datuetan oinarrituta Eurostatek argitaratu duen txosten batetik atera ditugu.

⁶ Eurostat (2012ko otsaila), Statistics in Focus (2012/9)

herritarren % 10 lan-intentsitate baxua zuten familietan bizi zen. Egoera horretan daude Erresuma Batua eta Belgika, horiek baitute lanik gabeko familietan bizi diren pertsona kopuru handiena (% 13). Hala ere, gero eta ohikoagoa da lanak pobreziatik irteteko aukerarik ez eskaintzea; izan ere, lanean ari direnen % 8,5 pobrezia-egoeran daude eta pobrezian dauden 18 urtetik gorakoen artean 3tik 1ek lana du. Herrialde askotan % 50ekoa da proportzioa. Balorazio berri honek erakutsi du, halaber, arrisku handieneko taldeak haurrak eta lan egiteko adinean dauden helduak direla eta ez adinekoak. EB27ko umeen % 26,9 pobrezia edo gizarte-bazterkeria arrisku handiagoan zeuden 2010ean eta 25 estatu kideetatik 21ean. Alde nabarmenenak Hungarian, Errumanian, Erresuma Batuan eta Luxenburgon izan ziren. Hala ere, badira arazo horien jomuga diren beste talde batzuk ere eta horiei garrantzi txikiagoa ematen zaie. Zer lotura du honek tokian bertako errealitatearekin? EAPN sareen arabera, gero eta alde handiagoa dago datu ofizialen eta errealitatearen artean, batez ere krisi-testuinguruari dagokionez. Gero eta gehiago dira talde tradizionaletan (etxerik gabekoak/jatekoa behar dutenak eta babeslekua/elikagai bankuaren zerbitzuak eskatzen dituztenak) pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasaten dutenak eta arrisku-talde berriak ere sortu dira: etorkinak, batez ere paperik gabekoak eta gero eta gehiago egoera zailen jomugan dauden gutxiengo etnikoak, guraso bakarreko familiak, familia ugariak, epe luzeko langabeak eta gazteak. Soiltasun-neurriak pobrezia agerian jartzen ari dira; oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukerak zaildu egin dira (batez ere, etxebizitza, baina baita hezkuntza, osasuna etab. ere), gutxieneko errenta egokia jasotzeko eta errenta babesteko beste neurri batzuetarako eskubideak murriztu egin dira, soldatak jaitsi eta zailagoa da kontratu mugagabe bidez kalitatezko lana eskuratzeko, lanaldi partziala edo murriztua egitera derrigortzen dute eta langabezia igotzen ari da. Errenta-eta ondare-desberdintasunak nabarmen ari dira hazten, baina ondarea ez da analisietan eta zergetan sartzen. Ezinbestekoa da EBeko datuak biltzeko aukera eta datu horien kalitatea hobetzea, horrela, pobrezia errealitatea ezagutzeko eta benetako irtenbideak eskatzeko⁷.

2. Zein dira Europako pobrezia errealitatearen aurka egiteko erronka nagusiak?

Erronka nagusiak krisiari emandako austeritatezko erantzunek ekarritako pobrezia errealitatearen gorakada ekiditea eta hainbat dimentsiotako estrategia integratuetan inbertsioak egitea dira, horrela, pobrezia murrizteko eta inbertsio horiek banaketa- eta birbanaketa-neurri hobeekin finantzatzeko. Lehenetsun nagusia austeritate-neurriek EB osora ekarritako suntsipena geldiaraztea da. Neurri horiek pobrezia eta bazterketa aktiboa sortzen ari dira, ongizate-estatua eta Europako gizarte-eredua murrizten. Suspertze ekonomiko inklusiboa sustatzea ere lehenetsuna da. EBk erantzukizun argia du ekonomiaren gobernantzarako duen metodoaren bidez. Tratatu fiskal berriak austeritate iraunkorra du bere baitan eta Europa 2020 Estrategian hazkuntza inklusiborako hartutako konpromisoak ahultzen ditu. Beste modu bateko metodo batek kalitatezko lanpostuak sortzeko inbertituko lukeen inbertsio sozialerako estrategia bat sustatuko luke; batez ere gizarte eta ingurumen zerbitzuetan egingo litzateke inbertsioa, baztertuta dauden taldeei inklusio aktiborako metodo integratu baten bidez (errenta maila egokia,

⁷ EAPN (2012ko otsaila): Re-engaging hope and expectations – Getting out of the crisis together.

kalitatezko zerbitzuak eskura izatea eta aktibazio pertsonalizaturako laguntza) gizarteratzea bermatuz eta eskubideen testuinguru argi batean. Hala ere, ezin da pobrezia murriztu, ez eta estrategia eraginkor bat finantzatu ere, batez ere oraingo testuinguruan, baldin eta aberastasunari eta errentan, ondarean eta zerbitzuetako sarbidean dauden gero eta desberdintasun handiagoei erreparatzen ez badiegu. Horrek esan nahi du lehentasuna eman behar zaiela soldata-desberdintasunak murrizteko neurriei (maila sozial egokiak finkatu behar dira errenta/soldatari eta gutxieneko soldatari gutxieneko babes egokia emateko. Ordainsarien arteko aldeak murriztu egin behar dira ekoizpena eta partaidetza eta mozkinak aintzat hartuta) eta, aldi berean, birbanaketa eraginkorra bermatu behar dela, errentaren, jabetzaren eta aberastasunaren gaineko fiskalitate progresiboago baten eta espekulazio-jardueren (finantza-transakzioen zerga) gainean. Irtenbide eraginkorrak eta iraunkorrak lortzeko beste baldintza bat gabezia demokratikoaren aurka egitea da, partaidetzan oinarritutako eta ordezkatzeko gaituen demokrazia bat bermatzeko⁸.

⁸ Ikus www.eann.eu/ginea



Adsis Fundazioak, egoera ahulean dauden pertsonekin lanean hogeita hamar urte baino gehiago daramatzan erakundeak, egun tristura eta ezintasun handiko garaia bizi du lurralde honetan bizi diren eta egunero haiekin ibiltzeko zortea dugun hainbat herritarren oinarrizko eskubideen urraduraren aurrean.

Askatasuna kendutako etorkinei⁹ egiten diegu erreferentzia, modu kezkarri eta itzulerarik gabekoan gure hirietako ateen itxiera “beldurrez” bizi dutenei. Pertsona horiek diskriminazio bikoitza sufritzen dute, batetik, errudun-izaeragatik *persona “non grata”* izateagatik eta, bestetik, erroldarik ez izateagatik, hau da, bizileku egonkorra ez izateagatik.

Askatasuna kendutako pertsonekin, Euskal Autonomia Erkidegoan kondena betetzeko Espetxe bakarrean, Langraiz Okan (Araba), kondena betetzen dutenekin lehen aldiz topo egiten dugunean, ez diegu galdetzen ea erroldatuta dauden edo noiztik, zer egoera pertsonal duten, zein diren haien etorkizuneko ametsak, zer behar duten... baizik.

Horrela, haiekin batera hasten gara bidea egiten, hasieran espetxe barruan eta denborarekin handik kanpo, landa-lanetan edo eguneko zentroan, erregimen irekian edo erdi askatasunean. Krisi-garaian kontuan hartzen ez direla dirudien kontzeptuetan –“justizia soziala” edo “giza eskubideak”– sinisten dugulako egiten dugun lana, ezerezean gelditu da zenbait zerbitzu publikoetarako sarrera arautzen duten azken araudiek horietan parte hartzeko aukerak murrizten dituztelako.

Askatasuna kendutako pertsonekin egiten dugu lan eta horiek hirugarren mailan daudenean, erregimen irekiaz gozatu ahal izateko bizilekurik gabe egoten dira. Immigrante izateagatik estaldura emango dien harreman-sarerik ez dutenek ere, askatasunaz gabetzeko zigorra osotasunean betetzeagatik kalera irteten diren egunean kale gorrian geratzen dira. Ez da etxebizitza-arazoa soilik, egia esan ez dute bizi berriari ekiteko inolako gizarte-laguntzarik jasotzeko aukerarik, aurrez espetxean erroldatuak izan ez direlako edo hala eginda ere, errolda Araban azaltzen delako eta horrek ez duelako gizarteratzeko laguntza jasotzeko eskubidea ematen migrazio-proiektua Bizkaian kokatzen denean, Bestalde programan parte hartzen dutenen kasuan gertatzen den bezala. Gogoan izan dezagun oinarrizko errenta kobratu ahal izateko irizpideak aldatu direla; urtebeteko erroldatik hiru urteko erroldara igaro da.

Lanbideko ikastaroetan onartzeko irizpideak finkatzen ari diren une honetan, oinarrizko errenta kobratzen ari ez badira edo paperik ez badute ezin parte hartu ahal izateko beldurra dago. Nola arautuko da gai hori?

⁹ Erregimen irekitik askatasunaz gabetzeko zigorrari alternatiba erreala eskaintzeko xedearekin 1990ean BESTALDE programa abian jarri genuenetik, gizarteratze normalizatua eta kritikoa lortzeko xedearekin, gizarteratze prozesuak lagundu ditugu eta azken 5 urteetan horien % 95 komunitatekoak ez diren immigranteak izan dira.

Jabetzen gara krisi-garai honetan gehiago direla egoera ahulean dauden pertsonak, langabeziaren zifrak sobera ezagunak dira. Horren aurrean, bi aukera daude, gizarte-laguntzen onuradun kopurua mugatzea, bertakoei lehentasuna emanda edo laguntzen zenbatekoa gutxitzea, pertsona gehiagorengana hel daitezten. Zer politika ari dira araudiaren mundu konplexu hori ehuntzen Gizarte Ekintzaren alorrean? Oinarrizko zein aukerek elikatzen dituzte denen posizionamenduak? Gizartea, instituzioak eta erakundeak, besteak beste?

Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalak, gure ametsak eta eguneroko betebeharrak bultzatzen dituen testuinguruak, hauei egiten die erreferentzia: *lan egiteko eskubidea (23), pertsona orok bizi maila egokia izateko duen eskubidea, berari eta bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko dizkiona eta, batik bat, elikadura, jantzia, etxebizitza, laguntza medikoa eta beharrezko gizarte-zerbitzuak (...) bermatuko dizkiona (25).*

Giza Eskubideen Unibertsaltasuna gizarte-politiken ardatz izateko aukerarik izango al da edo gure irudikarian herritartasun-eskubidea, eta, beraz, eskubide sozial unibertsalak, leku geografiko batean "legez egiaztatutako" egoitza-denbora jakinetik aurrera soilik kontuan hartzen jarraituko dugu? Ez al dira eskubide horiek "gizakiaren" ADNaren parte, non bizi garen albo batera utzita? Zerbaitetan huts egin al dugu?

Ez egonkortasun-garai hauek proban jartzen dituzte gure baliorik benetakoenak. Adsis Fundazioan gure inguruan baztertuen daudenen alde egiten jarraitu nahi dugu eta leihatila bakarraren aukerak espetxean hasitako gizarte-hezkuntzazko prozesuak eta askatasunera prestatzekoak zalantzan jar ditzakeen arren, geure buruari eusteko gai izango garela uste dugu, besteen euskarri izateko, ez gure lanpostuak defendatzeko, itsasontzia itsas zabalean hondoratzen ari denean denon artean erantzunkidetasuneko prozesuak eta elkar laguntzeko prozesuak sor ditzakegula uste dugulako baizik.



Eskubideak lortzea eta herritarren ongizatea banakoen ahalegin handien emaitza izan da. Hala eta guztiz ere, komunitateko kideek modu desberdinean egindako ahalegina izan da.

Aitorpen batean eskubide horiek islatzeko beharrak¹⁰ harreman sozialean oso errepikaria den gizakiaren bereizgarria azaltzen du: parekoekin etengabeko desadostasun-jarrera, berezkoa edo interes alderdikoei adoretua, garai eta toki bakoitzean; nolahi ere, hautazkoa eta moraltasun zalantzarrikoa ia beti. Horri buruzko iritziak izango dira.

Sarrera honek balio dezala egungo uneez hausnarketa egiteko, zenbaitentzat hain hondatuak, nahasiak eta hain bidegabeki zalantzarriak direnak. Berrero ere, zenbaitentzat bakarrik, beti berdinak, baztertutakoak.

Nori deitzen diogu baztertua? Egokitzen ez denari, produzitzen ez duenari, erabaki okerrak hartzen dituenari, ahalegintzen ez denari, bere burua gaintzen ahalegintzen ez denari eta ezbeharrak gaintzen ez dakienari. Egin dezagun galdera berriro ere. Nor dira baztertutakoak? Orduan, beste erantzuna topatuko dugu: lehiakortasunerako, arrakasta sozialerako eta borroka fratrizidetarako gai ez direnak, desberdintasunen, gabezia erlatiboen eta elkertasunik ezaren biktimak eta errentarako, oinarrizko ondasunetarako, zerbitzu publikoetarako eta herritarren eskubideetarako irisgarritasun desberdinak dituztenak. Arau sozial zurrinak, gogorak eta ulergaitzak aitortzeko zailtasun larriak dituzten herritarrak. Ez dezagun ahaztu arrakasta pertsonala eta soziala dagoeneko ez dagoela adimen maila logiko matematikoaren hain mende, banakoak pertsonen arteko testuinguruak eta horiek garatzeko eskaintzen zaizkion baliabideak hobetzeko dituen gaitasunen mende baizik.

Gizarteratze-printzipioa lortu nahi badugu, horri bidea ematen dioten elementuak bultzatu beharko ditugu, talde sozial guztiek aukerak izan ditzaten behar adina formula egokituta eta gu horietara egokituta. Arretarako ereduak herritarren benetako beharrekin bat egiten badute soilik izango da hori gertagarria. Horrela soilik lortuko dugu eraginkortasunaren kostua dagoen gastu ikusezinarekiko alderantziz proportzionala izatea, inoiz mintzagai ez den hori, inoiz aipatzen ez dena eta partida neurgaitza duena.

Nola zenbatzen da, baina kostu hori? Badirudi ez dela interesatzen horri buruz hitz egitea eta, hala eta guztiz ere, ez gara nekatzen honako hau bezalako kexak behin eta berriz errepikatzeaz : *“Diru kopuru izugarriak bideratzen zaizkie iruzur egiteko erabiltzen dutenei, nagusiki etorkinei, bertakoen kalterako”*. Zenbait xehetasunekin modu sendoan erantzutea merezi duen baieztapena:

1. Hain zuzen ere, iruzurra egungo gizartearen gaitza da, baina laguntza sozialen hartzaileari dagokiona, hain zuzen, kopuru txikieneko da, gainerakoekin

¹⁰ 1. *artikulua*. Gizaki guztiak libre jaiotzen dira eta duintasunean eta eskubideetan berdinak eta arrazoia eta kontzientzia dutenez, elkarrekiko anaitasunaz jokatu behar dute.

alderatzen badugu. Hortaz, herritarrei hainbesteko kaltea eragiten dietela diruditen zifrak, gogoan hartzeko modukoak izan arren, ez dira azken desorekaren arduradunak –ezta gutxiago ere–. Zein erraza den baina –eta zein egokia–, ahulenen kontrako entzute-galtze kanpaina bultzatzea, ez dago herritarren erantzuna ikustea besterik.

2. Azpimarratu (eta txalotu) beharra dago atzerritarrek jasotako baliabideak eta laguntzak gainerako biztanleek jasotzen dituztenen eskubide-baldintza (eta betebeharrak) berberetan ematen direla. Seguru asko, beste modu batera aztertuko litzateke legez kanpokoak direnak ez direla pertsonak barneratzea lortzen badugu; izan ere, legez kanpokoak egoerak, baldintzak eta ekitaldiak izan ohi dira.
3. Iruzurra zabaltzen bada, kontrol-mekanismoak behar bezala finkatuta ez daudelako da. Eginkizun hori instantzia publikoei dagokie; horiek, duela asko prestatu behar zuten laguntza ekonomikoen politika kontraprestazioarekin. Auzia ez datza baliabideen erabiltzailean, emateko moduan, gainbegiratzeko moduan eta banaketa-justiziaren printzipioa bermatzeko moduan baizik. Horrek, ordea, inbertsioa, dedikazioa eta planifikazioa eskatzen du, jakina.
4. Norabide horretan, errora, gaiaren muturrera, heldu nahi dugun begiratu behar dugu. Seinaleak nahasteak elkartasunik ezaren, estigmatizazioaren eta xenofobiaren bidetik soilik eramango gaitu.
5. Legez kanpoko egoeran egotea ez da pagotxa, zenbaitek uste duen bezala; hori dela eta, laguntza sozialek, tinko finkatutako gizarteratze alternatibekin lagunduta egon ezean, jasotzen dituen nekez berreskuratuko dute bazterketa-egoeratik eta lan-esplotazioak, langabeziagatiko prestazioek, zenbait soldatek eta modu prekarioan egindako lan ugari ere ez dute horretan lagunduko.
6. Ez dezagun ahaztu, oparotasunaren eta xahubidearen garaian, laguntza sozialak jasotzen dituzten atzerritarrekiko –gero eta orokorragoa den– gaitzespena gizakiaren oinarritzko beharren ukapena dela: elikadura, etxebizitza, jantziak eta berotasuna. Betebeharrak saihestezina eta guztion erantzukizuna da. Dagokionari, ahalbidetzea eta gizar-teari, oro har, errespetatzea eta erreklamatzeari.

Beharrezkoa dena egia bihurtzeak¹¹ gutxienekoen konpromisoa eta bete beharreko arau behar luke izan, oreka soziala, herritarren arteko harmonia eta bizikidetzaren onak lortu nahi badugu.

¹¹ Mendiluce: “beharrezkoa dena egia bihurtzearen artea”.



Haur-pobreziari buruz sentsibilizatzeko artikulua, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek haurrekin lotuta duten gizarte-hezkuntzako esperientziatik.

Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen testuinguruan hondartzara egindako irteeraren ostean, honela agurtu zen neskatila bat etxera itzultzean. –E! E! Itsasoko ura gazia da... –behaketa zuzena zen, harrigarria baina hondartzatik 35 kilometrora bizi zen 15 urteko nerabearengandik etorrta.

Pobrezian bizi diren haurrei aldizkako begiratu botatzeak bizi duten mundu mugatua ezagutzeko aukera emango digu, nerabe horren kasua bezala, lan egiten dugun beste neska-mutil askoren kasua: elurretan izan ez direnak, zinema ezagutzen ez dutenak edo bestelako esperientzia arruntik bizi izan ez dutenak, hala nola zoologikora bisita, oporraldia, antzezlan... Hemendik erraza da ulertzea zergatik duten inguruneaz ezagutza mugatua, hiztegi eskasia, besteekin esperientziak partekatzeko zailtasuna eta errealitate oso ezezagunei buruz ikasteko eta konektatzeko zailtasuna...Muga horrek desabantaila-egoeran jartzen ditu neska-mutil horiek txiki-txikitatik ikastetxean eta parekoekiko harremanetan. Gertukoa eta egunerokoa den elkarbizitzak haratago joatea eta muga horiek esparru zabalagoak eta sakonagoak biltzen dituztela ahalbidetzen digu. Askotan, hirugarren munduko erreferentziekin, gizarteak ondasunen gabezia absolutuarekin, gosearekin eta abar interpretatzen du pobrezia. Haur horien etxeetako errealitatea ez da hori; izan ere, elikadura, jantziak, etxebizitza eta antzeko beste ondasun batzuekin lotutako era askotako urritasun motak topa ditzakegu, baina gabeziak sotilagoak dira. Urritasuna behar guztiei aldi berean erantzuteko etengabeko zailtasunean adierazten da; horrela, beharren asebetetasuna aldizkakoa izango da. Ondasunen estaldura ez dago beharraren, komenigarritasunaren edo planifikazioaren mende, horretarako eskuragarri dauden baliabideen mende baizik.

Hori dela eta, beharrak egunero ebaluatzen dira eta lehentasuna ematen zaie beste behar batzuen aurrean, ongizatearen alderdi bati edo besteari etengabe uko eginda. Egoera iraunkor horrek haurrengan duen eragin nagusia segurtasun-falta bizitzea, eta ingurunearen gaineko aukeraketa, autonomia eta eskumena eragozteak izan ohi da. Normala da haur eta nerabe horiek behar adina arropa izatea, baina moda, kolore-konbinaketa edo egunero arropa garbia aukeratzeko aukerarik ez izatea eta baliabide ekonomikoen eta antolaketakoen proportzio berean, mugak ikus daitezke dutxatzeko aukerari, logela erabiltzeari, beste eremu batzuk erabiltzeari eta denborari, zaintzako pertsonen edo konpainiaren aukeraketari eta abarri dagokienez.

Ondasun-gabeziei dagokienez, etxebizitzara sarbidea izateko eta egonkortasuna lortzeko zailtasuna alderdi oso garrantzitsua da. Haurrengan are gehiago areagotzen dira familiaren estresatzaileak, etxebizitzak sinboliza dezakeen guztiagatik eta horren galerak adierazten

duenagatik. Etxebizitzaren beharrak eta familia auzotik edo udalerritik mugitzeak familia-deserrotzea ekartzen du; horrez gain, haurren kasuan, ingurunearekin eraiki ahal izan dituzten ainguraketa konpentsatzaileetatik urruntzen dituzte: eskola, adiskideak, auzoa eta bertako baliabideak. Ildo horretatik, etxebizitza batera aldi baterako sarbidea ematea helburu bakartzat duen etxebizitza-aldaketa haurtzararen gizarte-laguntzarako eta gizarte-hezkuntzako laguntzarako neutralizatzaile handia da.

Haurren errealitateari buruzko begirada horretan sakontzean, gizarte-hezkuntzako esku-hartzean berehala ardatzen dugu arreta familiarengan, amarengan, aitarengan edo beste pertsona heldu batzuegan, efektu horiei lagundu eta horiek arindu ahal izango dieten itxaropenarekin, baina hori askotan berehala desagertzen da. Alde batetik, minusbaliotasuna, langabezia edo azpienplegua oso agerian daude pobrezia-egoeretan; hortaz, mota bateko edo besteko familia-gaitasunak berez gutxituta egongo dira. Bestetik, behar oinarritzkoen eta berehalakoen bilaketan eta ebazpenean zentratuta eta okupatuta egongo dira. Ezegonkortasun ekonomikoak eskatzen duen gain-esfortzuan leku gutxi geratzen da seme-alaben beharrekiko sentsibilitaterako eta erantzukizunerako eta alderdi horrek okerrera egiten du familiari pertsona bakarrak eusten duenean. Laguntza, giro seguru eta egonkorra, entzutea eta jarraipen afektiboa, elkarrekintza ludikoa, errealitate fisikoa eta soziala ulertzeko laguntza eta gidaritza, jarreraren orientazioa... haurren beste behar batzuen artean, apenas estali ohi dira.

Ildo horretatik, pobrezia-egoerak biltzen dituen gabezien eta defiziten munduan areagotzen eta aurrera egiten jarrai genezake. Hala eta guztiz ere, haur horiek dutena edo ez dutena baino gehiago da faktore horiek elkarren artean egituratzeko eta bat egiteko modua. Familiako eta gizarteko egoera pasiboki bizi den baldintza multzoa baino are gehiago da, pertsonaren elkarrekintzarako, barnerratzeko eta eraikuntzarako eremua baita.

Hortxe zuzentzen da esperientzia inflexio-puntu kezkarirantz; izan ere, haurrak zalantzazko mundua baino ez du jasoko, bere ulertzeko gaitasunean jaso ezin duena, interpretatu ezin duena eta aurrea hartu ezin diona, ingurunean duen gaitasun- eta eragin-sentimendua mugatuz. Une horretan galduko du ingurune fisiko eta espazial zehatz eta berehalakoaz haratago egiteko, pentsatzeko eta sentitzeko gaitasuna. Orduan hartuko du haurrak oinordetzan familiaren pobrezia eta, seguru asko, horrela jarraituko du ondorengoei emateko.

Inflexio-puntu hori ikusezina eta isila da gure gizartearentzat eta urte batzuk beranduago baino ez dugu ikusiko eskola-porrotean, gaitasun eta moldaera sozialen gabezian, autoestimua baxuan, mantendutako esfortzuaren zailtasunean eta familia eta gizarte eraikitze hurrengo bizi-prozesuetan jasango dituen zailtasunetan.

Ordurako, eskolan, osasun-arretan, gizarte-zerbitzuetan, kultur eremuetan, errenta-babeseko sistemetan, etxebizitza-politiketan eta komunitatean, oro har, ikusiko dira eta ikusgarriak izango dira behar-adierazle asko eta bazterketaz hitz egingo da, baina agian ez gara konturatuko erantzunek une eta leku jakinean eta pertsona bakoitzarentzat iritsi behar dutela eta itxaronaldiak oso erlatiboak eta subjektiboak direla. Bien bitartean, zenbat neska-mutilek itxaron beharko dute 15 urte bete arte itsasoko ura gazia dela jakiteko?



BETI GIZARTEAN FUNDAZIOA –*Siempre en la Sociedad*– irabazi asmorik gabeko elkarte da eta gizarte-bazterketaren alorrean laneko eta prestakuntzako ibilbide luzea egin du. Fundazioaren **esku-hartzea** gizartean aukera berriak zabaltzeko erabakitasunetik zabaltzen da, pertsonaren balioari, haren duintasunari, lanari, kapitalari zentzu berria emanez, garrantzirik gabeko eta bazterketako egoeretan, eta betiere, sortzen dituen tokietatik eta finkatzen dituen harremanetatik. Jarduten duen **jarduera-eremua** Arabako Lurralde Historikora mugatzen da nagusiki, baina baita Bizkaira eta Gipuzkoara ere.

Gizarte-ekintza hiru alorretan garatzen du nagusiki:

1. Gizarte eta laneko txertaketa, txertaketarako enpresen sustapenarekin:

- **“Ikatzbizi” SL** (2002. urtea) enpresak adinekoentzat bizitegi-zerbitzuak eskaintzen ditu eta lan-munduan txertatzeko zailtasun berezia duten emakumeei lana ematen die. 14 bizitegi-plazako edukiera du.
- **“Tinko Garbiketak” SL** (2003. urtea) enpresak garbiketaren alorrean garatzen du lan-jarduera, Euskadiko hiru lurralde historikoetan.

2. Bizitzaren zaintza (haurtzarora, gaztarora): “Sortu-Leku” proiektua (*lugar de creación*), (2008. urtea). Emakumeentzako etxebizitza da, nagusiki nerabeentzat, haurdunaldian daudenerako eta/edo babesgabetasun eta gizarte-bazterketako egoeran dauden seme-alaba txikiak dituztenerako. 9 plaza ditu.

3. Osasun mentalaren alorra: “Zurekin” etxebizitza komunitarioa (2005. urtea); **“Huntzadar” etxebizitza komunitarioa** (2008. urtea); **“Aukera” erdi autonomoen etxebizitza komunitarioa** (2008. urtea), muturreko egoerak biltzen dituzten laguntza- eta gainbegiraketa-behar maila desberdinetako hiru etxebizitza, bazterketarako arrisku handiko egoeran dauden gaixo mentalen birgaitze psikosoziala bultzatzea xede dutenak. 17 bizitegi-plaza ditu guztira.

4. Prestakuntzaren alderdia, zeharkako alderdi gisa, BG Fundaziotik funtsezkotzat jotzen dena gizarte-ekintza guztiaren zer, nola eta nondik bermatzeko.

Beti-Gizartean Fundazioa inplikaturako dagoen gizarte-tarte horietan bizituko esperientziak gizakiaren sakontasunean eragiten duten probrezia egoerak itzultzen dizkigu; azken batean erronka_diren gaietan kokatzen gaituzte eta, aldi berean, 2012rako

- ✓ Ezgaitasun, gaixotasun mental, baldintzatzaile sozial.. egoeretako **muga, bazterketaren ikur** izatera heltzen da. Muga –gizaki oro osatzen duena– gainerakoekiko topagune izatetik urrun dago. Pertsona bakoitzaren aparteko balio absolutua da eta ezinezkoa da "ni" mundurik gabe eta mundua "ni" gabe. Ni isolatuaren ideia ezinezkoa da. Mugaren gertakaria, hauskortasunarena, zaintzen jakitearen **erronka** da, pertsona bakoitzak gizartean gure lekua izatea bermatzea, desabantaila sozialetatik eta muga-baldintzetatik haratago izanda bizitzea eta bizitzan bertan esanahi eta helburu berriak garatzea.
- ✓ Zenbait kolektibok sufritzen duen **estigmak** izugarri zailtzen du beste edozein herritar bezala oinarrizko aukeretara heltzea, hala nola etxebizitza, lan-aukerak, harremanak, partaidetza komunitarioa...
- ✓ Deserrotze- eta bazterketa-egoeretatik datozen kolektiboengan detektatzen den **zaugarritasun** pertsonal izugarriak desabantaila sozialeko egoera eta oinarrizko gabeziak **bakartasunetik aldatzeko aukerarik gabe** bizitzera eramaten ditu.
- ✓ Adierazitako pobrezia-egoerek zuzenean eragiten dute lan-mundurako txertaketan. Egiturak, lehiakortasunak eta **lan-baldintzak bitarteko gisa baino xede gisa** ezarrita, pertsona ugari **aldez aurretik** lanarena bezain oinarrizkoa eta funtsezkoa den alderdian baztertuta geratzea eragiten du. Era berean, dibertsifikatutako eta beti inklusiboak diren lan-aukeren falta.

2012. urterako erronkak dira: [gizarte inklusiboaren pentsamolde eta kontzientzia berria sortzeko lan egitea; prestakuntzako, laneko, harremanetako, aisiako... aukera inklusibo berriak mantentzea eta sortzea; tarte horiek mantentzea](#) Beti-Gizartean Fundazioa existitzeko leku gisa, gizatiartzeko aukera entzunaraziz eta eginez, gizarte-mugimendua igarotzen den lekuan giza pobreziazko marjinak utzita, pertsonarik zaugarrienak eta desabantaila sozialeko egoeran dagoena bere onenean sor ez dadin baldintzarik ahalbidetzen ez duten marjina sozialen mugimendua, gizartean askatasunean eta erabat parte hartzeko gaitasunarekin; [pertsonak beren autonomia duten subjektu izan daitezen bultzatzea, ahalbidetzea, beren bizitzako agente izateko gai direnak, zailtasunei aurre egiteko gai eta potentzialtasunak zabaltzeko gai; ezegonkortasunaren eta mendekotasunaren jarraitasuna apurtzea, bizi-kalitatea duin bihurtzeko. Pertsonentzako benetako itxaropenak sortzean, balioak sortzean, bizitzari zentzua ematean eta, horrela, pertsona bakoitzari dagokion balio absolutua itzultzean datza.](#)

Pertsonen beharrei erantzuna ematen saiatzearekin lotutako gai nagusia hauxe da: neurri handi batean, sinergiekin, sare sozialekin eta aukera berriak martxan jartzen dituzten lankidetzen kontua da.

Espetxea eta gizarte-bazterketa.

Roberto Vidal Failde. Espetxeetako Pastoralgintzako Bidesari Elkarteko gizarte-hezitzailea.



Espetxeetako Pastoralgintzako Bidesari Elkartean 16 urte daramatzagu askatasuna kendutako pertsonen gizarteratze-prozesuan laguntzen. Gure gizarte-hezkuntzako eginkizuna espetxean eta handik kanpo garatzen dugu. Prozesua espetxean hasi eta jarraipena kanpoan ematean datza, behin pertsonaren baldintza judizialek espetxetik irtetea ahalbidetzen diotenean espetxezigorra alternatiboki betetzeko. Espetxeetako biztanleria gehiena osatzen duten bi talde nagusirekin egiten dugu lan: askatasuna kendutako pertsona drogazaleak eta askatasuna kendutako immigranteak.

Urte hauetako lanak hainbat azterketa eta txostenek berretsi duena egiaztatzea ahalbidetu digu: **espetxea eta gizarte-bazterketa oso lotuta daudela**. Bi modutara lotzen dira: espetxean amaitzen dute gizarte-bazterketa larriko egoeratik datozen askok eta espetxeko egonaldi errepikatu eta luzeek, aldi berean, ondorio bikoitza dute pertsonarengan; batetik, zaurgarriago bihurtzen dute alderdi guztietan (fisikoa, psikologikoa, harremanak) ezinbestean berriro harrapatuta geratuko den marjinalitatezko testuinguruetara bultzatuta.

Nor dira presoak? % 90 gizonezkoa da, % 35 ezkongabea eta batez besteko adina 36 urtekoa da. Ia erdiek lehen mailako ikasketak soilik dituzte, % 7k ez du ziklo hori ere amaitu eta presoek % 1 analfabetoa da. Kalifikazio gabeko langileak dira gehienak (% 56) eta papar zuriko lanekin, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen da (% 15). Preso atzerritarren % 80k dio ez duela enbaxadaren edo kontsulatuaren laguntzarik jasotzen. (*EL MUNDO. 2010EKO IRAILAK 13, ASTELEHENA*). Datu ofiziosoen arabera, osasun mentaleko arazo larriekin espetxeratutako ehunekoak presoek % 50 gaintzen du (atzerritarren kasuan, proportzio horrek gora egiten du espetxean).

Datu horien arabera, bidezkoa dirudi pentsatzea **esfortzuek pertsona horiekiko esku-hartzera bideratuta egon behar dutela, gaitasun gehiagorik hornitze aldera**, bai gizarte-gaitasunei dagokienez, hau da, kudeaketa emozionala, aisialdiaren erabilera eta sare sozial berri eta positiboaren eskurapena eta lan-merkatuan sartzeko trebakuntzari dagokienez, enplegurako gaituko duen trebakuntza erabat praktikoa eskuratzetik igarota. Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, etxebizitza duinerako irisgarritasuna ahalbidetzea, diru-sarrerara urriekin bat egingo duena.

Zuzeneko lanak adierazten digu pertsonak espetxe barrutik gizarteratzeko azken etapetaraino egindako prozesu luze eta neketsuaren ostean, honela aurkitzen direla: **prestakuntza-ikastaro urriekin** eta hor gero eta hautaketa zorrotzagoak egiten direnez, azken postuetara baztertuta geratzen dira (hori dela eta, lanerako orientazioak eta enplegurako prestakuntzak emaitza urriak izango ditu laguntza integraleko egokitutako lanik gabe); erdi mailako herritarrarentzako ezinezko **lan-egoera** eta are gehiago duela hilabete batzuk espetxetik irten eta basamortu itxurako curriculum duenarentzat; eskasia-garaian "lehenengo bertakoak, eta kanpotik

etorritakoentzat iristen ez bada, joan daitezela beren herrira" pentsatzen hasten den **gizartea** (egoeraren oinarritzko kausak planteatu gabe eta poli-krisiaren benetako arduradunak identifikatu gabe); mileurista batentzat iritsezina izaten jarraitzen duen alokairuko **etxebizitza** eta are gehiago OE jasotzen duenarentzat (OE 648 euro/hilean: logela baten alokairua, egongela erabiltzeko eskubiderik gabe, 300 euro).

Zein dira 2012rako erronkak? **Lehen erronka:** pertsonen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna oinarri dituzten baldintza sozialak errealak eta eraginkorrak izan daitezen lanean jarraitzea, gero eta handiagoa den asimetria sozialera eramaten duten arrazoiak murriztuta. Tratamenduzko baliabideak, baliabide juridikoak eta gizarte-laguntza izatea eskatzea, askatasunean duintasunez bizitzeko.

Bigarren erronka: esku-hartzeari eustea, kalitate-baldintza onargarrietan. Zaila suertatzen zaiguna, gizarte-hezkuntzazko esku-hartzeaz ari gareneko gasturik handiena, alorrean prestakuntza eta esperientzia ona izango duten profesionalak izatea dela badakigu. Erakunde txiki askok ez diote murrizketen garaiari biziraungo eta salbatzea lortuko dugun programak lanpostu askoren ezegonkortasunaren ordainetan salbatuko dira. Nire iritziz, horrek zerbitzuaren kalitatea urritzea ekarriko du.

Hirugarren erronka: hirugarren sektoreak bat egitea eta administrazio publikoak gizarte babesaren eta esku-hartzearen alorrean pixkanaka egiten ari diren murrizketen aurrean posizionamendu argia babestea. Erakundeen artean baliabideak partekatzea. Planteamendu puristak gainditzea komunean dugun guztia ezagutzeko eta elkarrekin lan egin ahal izateko. Hezkuntza-proiektuari eta langileen prestakuntzari garrantzirik eman gabe, lizitazioetan nork egiten duen merkeago soilik begiratzen duten administrazio publikoak salatzea. Linea elektrikora eta esku-hartze sozialera eskaintza berdina egiten duten enpresak ikusiko ditugu, ez dute inolako balio erantsirik gehitzen, baina bai kostu erakargarria.

Laugarren erronka: berritzea, informazioa modu irekian jasotzea esan nahi duena, ikuspegi desberdinetatik, ideia eta ikuspegi berriak sortzeko. Lan-prozesuan bertan prozedura eta ekintza berriak txertatzea, atzemandako mugei eta arazoei hobeto erantzuteko.

Bosgarren erronka: boluntarioen erakundeak, eta ez besterik egin ezin dela dioen diskurtso nagusiarekin bat egiten duen pertsona "jatorren" multzoa, gogoetatsuak eta kritikoak diren erakunde eta boluntarioak baizik. Argi dago zauriak sendatu beharko direla (asistentzialismoa), baina kausak begi bistatik galdu gabe, funtsean politikak izango direnak, krisitik irteteko laneko eskubideak eta eskubide sozialak murriztuta defizita ere murriztea beste modurik ez dagoela sinistarazten saiatuko direnak.



Borondate onez hasi ginen lanean, elkartasunezko jarrerarekin. Ahal genuena eginez, eskura genituen baliabideekin, zegoenarekin konformatu gabe. Gehiago nahi izanda: baliabide gehiago edukitzea, pertsona gehiagori arreta eskaintzea, arretaren kalitatea hobetzea... eta behar adinako baliabideak ez izateagatik kexatu gabe eta ezer egiteari utzi gabe.

Horrek ordain bikoitza ekartzen zigun: batetik, arreta eskaintzen genien haiekin topaketa (eta esker ona, jakina). Bestetik, izaki bihozbera moduan ikusten gintuen gizartearekin, izen-abizenekin eta aurpegi jakinekin topaketa (eta esker ona).

Gutaz zintzoak ginela, lan handia egiten genuela, meritu handia genuela... entzutea gustuko genuen. Horrez gain, egoera horretan pertsonengandik oso gertu geunden eta hala sentitzen ginen, zuzeneko harremanarekin.

Pixkanaka, adierazpen horiek atsegin izateari utzi zieten, nolabaiteko kutsu samina eraginez. Ez genekien zergatik, baina lehenik eta behin hotz uzten gintuzten, ondoren triste eta, azkenik, haserre. Berehala jakin genuen zergatia: ez ginen jende zintzoa soilik, profesional galantak baizik!

Aldarrikatzeko beharra sentitu genuen lehen aldian izan zen. Gure esfortzuak teknikari bikainak bilakatzeko bideratzen hasi ginen, arreta eskaintzen genienei horrela zerbitzu hobea eskainiko geniela sinetsita. Garai hark "ongizatearen estatu" delakoaren hazkunde handienarekin bat egiteak zirkulua ixten zuen: ez zen gure nahia bakarrik, baita gizarteak eskatzen ziguna ere, orduan dagoeneko izenik, abizenik eta aurpegi zehatzik gabe, erakundeetako arduradunenetatik haratago. Denak pozik!

Bide horretan fenomeno bitxiak gertatzen hasi ziren: zerbitzuak eskaintzen genizkien pertsonak orokorrean izendatzeko hitza erabiltzeko beharra sentitu genuen. Izar ("erabiltzaile") terminotik, "bezero", "paziente"... terminoetatik igarota, "fistro" moduko hitzetaraino.

"Diziplina anitzeko taldeak" osatzen genituen profil profesionalen gaitasunak garatzeko eta hobetzeko beharra ere sentitu genuen. Hori primerakoa izango zen "anitza" (denak batera leku berean) "artekoa" denetik (...eta gainera kohesionatuta) bereizten duen lerro sendo ikusezina maizago gainditzen jakin izan bagenu. Gure adiskideengandik ere bereizi nahi genuen!

Sortzen ari ginen eta hain ona zen hura guztia eusteko finantziario egonkorra izateko beharra sentitu genuen gainera. Egonkortasun hark arretarako zerbitzuak, kasu askotan, hartzaileen arazo nagusiaren arabera (toxikomania, gaixotasun mentala, etxebizitza gabezia...) antolatzea ekartzen zuen, bizi zuten unearen arabera antolatu beharrean. Gai burokratikoiei ahalegin gehiago eskaintzea eragiten zuen. Horrek guztiak haien eta gure artean ere oztopoa jartzen zuen.

Horretarako beharrik sentitu gabe, auzoekiko harremanaren aldaketa ere bitxia izan zen. Zenbait bizilagun beharrezko aliatu izatetik ezezagun izatera pasatu ziren, eta kasurik okerreanean, etsai izatera. Hor, urruntzea etorri zen, bilatu gabe.

Horrek guztiak mugitzen ikasitako eta eroso sentiarazten gintuen eszenatokia osatzen zuen. Gauzak gertatzen hasi dira, ordea; horietako zenbait modu biziagoan jaso ditugu azken urtean eta mugiarazi eta ikuspegia aldarazi egiten digute.

Eredu teoriko desberdinek denbora daramate beste hizkuntza batean hitz egiten. "Sendatzea" aipatzen dute, gaixotasunaren atzean beti pertsona dagoela adierazteko. "Partaidetza" aipatzen dute, herritartasuna guztion mesederako ekarpena eginez gauzatzeko guztiok garela gai (baita haien ere) esateko. "Elkartasuna" jatorrizko ikuskerari berriro helduz aipatzen dute: denok elkarrekin lan egitea eta ez soilik indartsuak ahulari laguntzea. ...diote, baina hitzak haizeak eramaten ditu eta entzun gabe bizitzera irits gaitzke...

...zenbaitetan errealitateak entzutera behartzen gaituelako izango ez balitz: zenbait bizilagunek jada ez gaituzte gertu eduki nahi, besteak beste, gu urrundu ginelako eta horrek kezkatu egiten gaitu orain.

Arazo espezifikoerantzuteko diseinatutako zenbait zerbitzu dagoeneko ez dira betetzen, mesede handia egingo lieketen pertsonak dauden arren, administratiboki onartuak izateko baldintza guztiak betetzen ez dituztelako eta horrek kezkatu egiten gaitu.

Beste batzuk ez dira husten, gure arretaren mendeko paziente bilakatzen ditugulako eta horrek kezkatu egiten gaitu.

Etorri zaigun krisiak gure egiturei eusteko baliabideak mugagabeak izango zirela pentsatuz fikzioan bizi ginela jabetzea ekarri digu, eta horrek bai kezkatzen gaituela!

Lehen aldiz zaugarri sentitzen gara eta horrek lehen gu baino ahulagotzat jotzen genituenekiko berdintasun handiagoko ikuspegian kokatzera eramaten gaitu: pertsona gisa gehiago ikusten ditugu eta ez hainbeste gure lanaren xede gisa.

Teorialari horiek guztiak esaten dutenaren benetako esanahia sentitzen, eta ez soilik pentsatzen, laguntzen digu horrek. Pertsona gehiago eta erabiltzaile gutxiago ikusten ditugu.

Baliabideak eskas direnean eta garatutako hedapen tekniko guztia mantendu ezin dela ikusten dugunean, eskaintzen dugun balio erantsirik handienak pertsona (erabiltzailea) eta pertsonaren (profesionala, boluntarioa...) arteko topaketan duela jatorria konturatzen gara.

Topaketa horren kalitatea bizitza ulertzeko moduak ematen du (ez lanagatik bakarrik), gure erakundeetatik bultzatzen diren balioek. Hori merkeagoa da. Gainera, abantaila eskaintzen digu, halakorik ez dutenen aurrean.

Orain pendulua bere lekura, posizio naturalera, itzuliko da. Orain badakigulako teknikari onak izateko, ondo kudeatutako erakundeak edukitzeko, profesionalak izateko, adierazleekin lan egiteko eta are gauza gehiagotarako... ez dagoela pertsonengandik urrundu beharrik.

Y ahora el péndulo vuelve a su sitio, a su posición natural. Porque ya sabemos que para ser buenos técnicos, para tener organizaciones bien gestionadas, para ser profesionales, para trabajar con indicadores, y para muchas cosas más... no hace falta alejarse de las personas.



Caritas Bizkaia.

Caritas Bizkaiak garatutako gizarte-ekintzatik, azken urteetan landutako pobrezia, zaugarritasun eta bazterketa-egoeren konplexutasunerako joera antzeman dugu:

Lantzen ditugun biztanle talde ia guztiengan **osasun mentalekin** zerikusia duten arazo nabarmenak detektatu ditugu, baita haurren ere. Horrek laguntzeko prozesuak oztopatzen ditu eta gure zerbitzuak errealitate horretara egokitzeko erronkaren aurrean kokatzen gaitu. Era berean, arazo horri jarraiki, errealitate desberdinetara egokitutako baliabideekin, izaera publikoko eremu soziosanitarioa sortzea premiazkoa dela egiaztatu dugu. Osasun mentaleko sistema publikotik Caritasera jo dutenen kopuruak gora egin du; horrekin, gure proiektuetan, gure erakundeak irtenbidea nekez eman diezaikeen gero eta konplexuagoak diren diagnostiko sozial eta mentalak dituzten pertsonen laguntzarako eta harremanetarako esparrua bilatu nahi da.

Guraso bakarreko gero eta **familia** gehiago daude, beren kargura adingabekoak dituzten emakumez osatutako familiak, hain zuzen. Hurrekin egiten dugun esku-hartzean, familia-eredu horretan bizi diren adingabekoen % 23tik % 30 arteko ¹²hazkundera atzeman dugu. Oro har, egoera horietan, emakumezkoak ez du izaten sufritzen ari den familiako eta/edo gizarteko arazoak gainditzeko lagunduko dion laguntza sozial/familiarreko sarerik. Enplegurako prestakuntza-prozesuak eta kalitatezko enpleguetarako sarrera errealak porrot eginda geratzen dira, adingabekoen zaintzako bakardadean eta gatazka pertsonalen eta familiakoen konponketan. Kronikotasun-arriskua eta familian zaugarritasuna berriro sortzeko arriskuak oso altuak dira.

Familien pobrezia, zaugarritasun eta gizarte-bazterketa egoerek estalita, familia horietako adingabeko kideen ezegonkortasuna eta ezegonkortasun materiala ezagutu dugu. Azken urteetan mintzagai izan den fenomeno da: **“pobrezia eta haurren zaugarritasuna”**. Guraso bakarreko familiei buruz deskribatutako errealitateaz gain, fenomeno horretan eragiten duten beste egoera batzuk gehitu behar ditugu: etxebizitzaren ezegonkortasuna, adingabekoak dituzten familiak hainbat familia-unitateko pisuetan berriz alokatuta bizitzera bultzatzen dituen; arreta psikologikoaren eskaera gero eta handiagoa, adingabekoari, nahiz familia osoari zuzenduta (familia-terapia); gero eta adingabeko gehiago dago ingurune soziofamiliar konplexuetan, gurasoen arteko harreman zailarekin, banaketa zailekin eta bizi-baldintza ezegonkorrekin; nerabe aurrekoen familia-ingurune helduenganako indarkeriazko kasuak eta abar ere ezagunak dira.

Era berean, nabarmendu beharrekoa da migrazio-prozesuak adingabekoengan izan duen eragina: eskola-zailtasunak, migrazio-duelua, denbora luzez elkarrekin bizi gabeko gurasoekin berriz elkartzea, gurasoen ezegonkortasun dokumentala eta laneko ezegonkortasuna, talka

¹² 2008-2010 aldia

kulturala, etxean helduak falta izatea ("giltzadun haurrak"). Horrez gain, bakarrik dauden, harrerako gizartean seniderik ez duten, gazte etorkinen errealitatea konplexua da.

Gure begirada gure jarreretan zentratuta, gizartearen ikuspegitik, kezkarekin ikusten dugu gizarteak **gaitzespeneko irudikari sozialerako** bidea hartu duela edo kasurik onenean zaugarritasuneko edo gizarte-bazterketako istorioak dituzten (etorkinak, ijito-etniako biztanleria, espetxeetan esperientzia duten pertsonak, kaleko bizi-istorioa duenak, gizarte-laguntzak jasotzen dituztenak eta abar) **egoera bereziko zenbait kolektiborenganako mesfidantza** duela. Gaitzespeneko/mesfidantzazko irudikari sozial horrek arriskuan jartzen ditu egoerarik okerreanean dagoen biztanleriarekiko elkartasun-loturak, horrek gizarte-kohesiorako, komunitatearen eraiketarako eta pertsona horien txertaketa sozial erreal eta eraginkorrerako dakartzan arriskuekin.

Detektatutako errealitate horietan guztietan, zaurkortasunean sakontzen duen ezaugarri komuna topatuko dugu: **pertsona/familia horien harreman-sareen eta lehen mailako laguntzaren porrota**. Beste modu batera esanda, kasu gehienetan "*harreman-kapital*" urria duten pertsonak/familiak dira edo, kasuan kasu, hobetzeko benetako aukerak zailtzen edo okertzen dituen "*harreman-kapital*" negatiboa dutenak. Pobrezia- eta bazterketa-egoeran daudenen "**bakardadeaz**" hitz egin dezakegu. Pertsona horietako askok Caritasen arazo zehatzak konpontzeko laguntza bilatzeaz gain, beren bizitzari zentzua emango dion eta bizitza konplexua eramangarriago eginda bakardade-sentimendua arinduko dien entzuteko, harremanetarako eta bizikidetzarako eremua bilatzen dute.

2012. urteari begira, gure kezka nagusia errealitate horri guztiari erantzuna ematea da; bereziki babesgabe geratu baita **gure babes-sisteman egindako murrizketak direla eta**. Oinarrizko Errenta sisteman¹³ eta Bizkaiko Foru Aldundiko gizarteratzeko laguntzetan egindako aldaketek estaldura horiek gabe utziko dituzte Euskadiko hiru elizbarrutietako Caritasetan arreta jasotzen zuten 3.000 lagun baino gehiago. Bere horretan oso konplexua den errealitateari gehitu beharreko zailtasuna dakar horrek.

¹³ 2011ko azaroaren 24ko 4/2011 LEGEA, diru-sarrerren bermeari eta gizarteratzeari buruzko Legea aldatzen duena.



Krisi ekonomikoak errefuxiatuen babesgabetasuna okertu du eta asilo-eskubidearen krisiak egoera administratibo irregularrera baztertu ditu

Munduan 43,3 milioi pertsona errefuxiatu daude. Espainiak Errefuxiatu Estatutua 260 laguni soilik eman die azken urtean (371ri bestelako nazioarteko babeska eman die). 2.772 asilo-eskatzailerik ukatu die Estatutua. Babes bila iritsi ziren Espainiako mugara, baina zoritxarrez panorama sozial suntsitzailea baino ez dute topatu eta egoera horretan, bereziki, errefuxiatuak jipoitzen ditu krisi bikoitzak: asilo-eskubidearen krisiak eta krisi ekonomikoak.

Zersenay¹⁴ 2.772 pertsona horietako bat da. Eritreatik ihes egin zuen 2005ean, urteetan jazarpena sufritu ondoren, estatuko gobernu-botereentzat "deserosoak" ziren talde etniko, talde erlijioso eta demokrazioaren aldeko gizarte-mugimenduko kide izateagatik. Herrialde seguruaren bila ari zela, herrialde asko oinez gurutzatu zituen: Sudan, Uganda, Kenya, Tanzania, Malawui, Zimbawue eta, azkenik, Hegoafrika eta handik Madrilgo Barajas aireportura egin zuen hegana. Han asiloa eskatu zuen 2008ko abenduan.

Hiru urte beranduago, 2011ko abuztuan, Zersenay-k asilo-ukapenaren jakinarazpen ofiziala jaso zuen Espainiako estatuaren aldetik. Uko horren arrazoi gisa, Espainiako gobernuak dio ez duela Zersenay jatorrizko herrialdean arriskuan zegoela azaltzen duen frogaz frogagaririk. Eritreako Mugimenduan demokraziaren eta giza eskubideen alde parte hartu zuela erakusten duten prentsa-artikuluak eta haren aita hiru urtez espetxeratu izana Zersenay-k herrialdeetik ihes egiteagatik errepresalia gisa, ez da nahikoa izan Espainiako estatuak ematera behartuta dagoen errefuxiatu-egoera edo giza babeska emateko (1951ko Genevako Konbentzioan eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako betebeharra, biak ere Espainiak berretsiak).

Uko horren berehalako ondorioa Espainiako estatuak asilo-eskaera ebazteko behar izan dituen hiru urteetan Zersenay-k eduki dituen egoitza- eta lan-baimenen galera izan da. Goizetik gauera, Zersenay lan egiten duen enpresan, euskara ikasten duen eskolan eta Lanbideko prestakuntza-ibilbideetan besteetako bat izatetik "paperik gabekoa" izatera pasatu da. Goizetik gauera kulturalki plurala den euskal gizartearen eraikuntzan eragile aktibo izatetik herritar zaugarrienak, horien artean egoera administratibo irregularrean dauden atzeritarrak, mendean hartzen dituen krisi ekonomikoaren biktima-zerrenda amaigabea gehitu da. (Nabarmendu beharra dago egoera irregularrean dauden etorkin asko, errealitatean, asilo-eskubiderik lortu

¹⁴ CEAR-Euskadiko erabiltzaile baten izen faltsua; aurrez Bilboko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordearen Aldi Baterako Abegi Zentroan egondakoa.

ezin izan duten errefuxiatuak direla, "asilo-eskubidearen krisi" delakoaren sortzaile diren Iparraldeko Gobernuen gero eta murriztaileagoa den politikaren ondorioz).

Zersenay bezala, Euskadin asiloa ukatu zaien hainbat eta hainbat lagun bizi dira; ezin dute jatorrizko herrialdera itzuli (bertarako sarrera debekatuta dutelako edo bizia galduko luketelako) eta egungo bizitokia duten herrialdean nekez biziraun dezakete, mundu mailako krisi ekonomikoaren ondorioz.

Lehenik eta behin, krisiak **gizarte-laguntzak eskuratzeko baldintzak gogortzea** ekarri du 2011ko urtarrilaz geroztik (Gizarte Zerbitzuetako araudi berriarekin), Zersenay eta bera bezala asiloa ukatu zaien beste hainbat eskatzaile oinarrizko beharrak asetzeko gutxieneko diru-sarrerak eskuratzeko ukatzen zaie, berehalakoan gertatutako irregulartasun administratiboaren ondorioz, enplegua eskuratzeko ezintasuna dela eta. Bigarren, krisiak **atzerritartasun-legedia gogortzeko** aurreikuspena ere ekarri du, arautze-bideekiko eraso zuzenarekin. (Zersenay-ren erregularizazioa eragotziz gero, Espainiako estatuak ez itzultzeko printzipioa ez urratzeko obligazioa hautsiko luke; horren arabera, dena delako pertsona ezin du pertsonaren bizia edo askatasuna mehatxatzen dituen edo haren oinarrizko Giza Eskubideak urra ditzakeen herrialdera itzuli). Horren ondorioz, erregularizazio bideraezinaren eta jatorrizko herrialdera itzultzeko ezintasunaren ikuspegiak, **berehalakoan gertatutako gizarte babesgabetasunaren** ondorioekin bat eginda (auzo-komunitateetako integrazio-prozesuen inboluzioa, bazterketa-egoeran dagoen biztanleriarentzako zerbitzuak erabiltzera behartzen dituen deserrotzea, pilaketa- eta infraetxe-egoeren areagotzea, etxebizitza falta, bazterketa eta marjinalitatea...), krisiaren hirugarren emaitza eragiten dute: **desorekak pertsona horien osasun mentalean**.

Bereziki Euskadin eta Espainiako estatu osoan, oro har, errefuxiatuen kolektiboarekin lan egiten duen CEAR-Euskadi erakundea eta gobernuz kanpoko beste erakunde batzuk beldur gara horrek guztiak ez ote duen ekarriko gizarte demokratiko, berdintasunezko eta bidezko orok berezkoa duen pertsona horien ohitura sozial eta hiritar normalizatueterako **txertaketa-prozesuaren atzerakada**. Era berean, beldur gara errefuxiatuen (Errefuxiatu Estatutua ematen zaien % 8a osatzen dutenak, nahiz administrazio-egoera irregularrean dauden immigranteak) **Oinarrizko Giza Eskubideen urratzeak** naturalizatuko ote diren egungoa bezalako testuinguruan, krisi-garai honetan "sobera" egotea kritikatzeko zaien atzerritarren aurkako **diskurtso diskriminatzaileak**, arrazistak eta xenofoboak **areagotzen** ari diren testuinguruan.

Gure eguneroko lanari dagokionez, beldur gara garai batean "benefizentzia" gisa ezagutzen zen **gizarte-sistema asistentzialistara atzera egingo ote dugun** eta horrek esku-hartze sozialeko lanaren profesionalizazio falta ekarriko ote duen, eta horiek batera etorriko da ahalduz, giza eskubideak defendatzeko eta azken urteetan bereizgarri egin gaituzten eragin politikoko zeharkako lerroez gabetutako jarduera-eredu paternalistetara ("laguntzea" ahalbidetzen dutenak, baina ez aldatzea) itzultzea.

Arrisku horien kontzientzia hartzetik sortzen dira epe labur eta ertaineko gure erronkak.

Horietan lehena **eraldaketa soziala gure esku-hartze sozialeko eremuan txertatzeko beharrean** oinarritzen da, eragin politikoko eta salaketako lerroak bertan sartuta. Sarean bat egindako erakundeen jardueretan gauzatutako ildo horietan honako hauek bultzatzea lortu

nahiko dugu: aldaketak eta kulturalki plurala izango den gizartearen eraikuntza; asilo-
eskubidea, kulturalki heterogeneoa den biztanleriaren giza eskubideak eta kultur
aniztasunerako eta horren aberastasunerako eskubidea ezagutu eta aitortuko dituen.

Bigarren erronka laguntza eskaintzen diegun pertsonekin **beste esku-hartze mota bat
diseinatzeko eta irudikatze behar**ean oinarritzen da. Mota berri horretan helburu hauek
bilatuko ditugu: programak pertsonetara egokitzea (eta ez alderantziz), baztertutako pertsonen
egoera duin bihurtzeari lehentasuna ematea, laguntza epeltasunarekin sustatzea, autonomia
bultzatzen duten gaitasunak lantzea eta laguntza-sare horizontalen sorrera, esku hartzen dugun
pertsonetikiko talde lanaren bidez.

Azken batean, asilo-eskubidea ikusgarri egiteko eta Euskadiko agenda politiko, sozial eta
hiritarretan errespetu dadin egingo dugu lan; krisi ekonomikoa immigranteen eta errefuxiatuen
giza eskubideak urratzea babesteko aitzakia izan ez dadin, horrek eskubideetan eta
betebeharretan parekoak diren herritarren arteko kultura arteko bizikidetzaren eragotziko bailuke.



Horixe bera galdetzen zion behin eta berriro bere buruari Linda Hunt aktoreak *El año que vivimos peligrosamente* (Peter Weir, 1983) filmean interpretatutako kazetariak, Sukarno-k gobernatutako Indonesiako pariek bizi zuten zoritxarreko errealitatearen aurrean. Zer egin behar dugu gure gizartean batere erdeinagarria ez den zatiak bizi duen egoera gorabehera ekonomikoen ondorioz zoritxarrez larriagotu egin dela ikusita? Gorabehera ekonomikoek berekin ekarri duten egoera sozialaren eta zuzenbideko egoera demokratikoaren konkisten murrizketa dela eta. Azken batean, kalitatearen kontzeptua urrun samar ikusten zutenen bizi-kalitatearen okertze absolutuaren ondorioz.

Badirudi gizarte-bazterketa egoeran dagoen pertsona kopurua nabarmen areagotzeak eta dagoeneko egoera horretan zeudenen baldintzek okerrera egiteak lanean jarraiazi beharko gintuzkeela. "Gizartera" bideratutako aurrekontuko partidetak murrizketak (zoritxarrez, badirudi zalditik erortzen den lehen zaldizkoa dela beti); aurre egin behar diogun lan-egoera ezegonkorra, berriro itzuliko ez zirela pentsatzen genuen langabezia-tasekin eta Maslow-ren piramidean aldaparik txikiena ere eskalatzea ia ezinezkoa den lan izugarri ahulekin; etxe-utzarazpenen eta kalean bizi den pertsona kopuruaren areagotzea; protagonismoa helburu praktikoagoei ematen dieten eskubide askoren narriadura...

Ziur asko, luze zabalean jarraitu ahal izango genuke zerrenda horrekin, baina eragiten diguten zorigaitz gehienak zerrendatu ditugula uste dugu.

Zer egin behar dugu, beraz?

Egoera horren aurrean ez dago jasatea besterik, are gehiago esanda, gure erakundeetako esfortzuei zentzua ematen dietenengatik ahaleginak bikoiztu behar ditugu, laguntza behar duten eta administrazio publikoak ematen ez dien (zenbait kasutan badirudi ez dutela nahi) haientzako. Ahal bada, gehiago estutzea baino ez da geratzen, eta gehienek kasuan, bokazio hutsa zenean iritsi ginen lanean zentratu behar dugu.

Gurutze Gorritik baieztatu dezakegun gauza bakarra gure goiburuari indarrez balioa emango diogula da: "*pertsonengandik gero eta gertuago*". Badirudi esaldi horrek inoiz baino zentzu gehiago duela.



jasandako emakumeak eta lagundu gabeko immigrante gazteak eta, beraz, horiei buruzko informazio adierazgarria eman dezakegu, bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, horien egoeraren okertzeari buruz, alegia.

Tratu txarren egoeran dauden emakumeen artean, erakundeetako babes-neurriak ez dira murriztu, baina, tratu txarrez gain, bazterketa sozio-ekonomikoko egoeran daudenen kasuan, krisiak modu erabakigarrian eragiten du epe ertain eta laburreko independentzia pertsonaleko ibilbideei ekiterakoan.

Lan egiten dugun ehun emakumeetatik hogeita hamar inguru babesgabetasun larriko egoera horretan daude. Profil estandarra honako hau da: berrogei urtetik gorako emakumea, seme-alabak bere kargura dituen eta neurri handian immigrantea, nagusiki, latinoamerikarra, baina baita Saharaz hegoaldeko eta Marokoko zenbait emakume ere.

Oro har, diru-sarrera gehienak hainbat iturritatik etortzen dira, "zabor-kontratu" delakoetatik edo ezkutuko ekonomiatik, horregatik, ezegonkortasun-baldintzak oso altuak izan ohi dira. Horrez gain, kasuen % 90ean, emakumeen diru-sarrera ekonomikoa izan ohi da familiako euskarri ekonomiko bakarra.

Egoera hori sufritzen duten emakumeak ezin dira bazterketaren zirkulutik irten. Nahitaez erasotzailearekin bizitzera behartuta daude, tratu txarren egoera iraunaraziz edo bizirauteko ekonomikoki egoera ezegonkorrean harrapatuta aurkitzen dira. Ezin dute prestakuntza-prozesuetan sartu, seme-alabak non utzi ez dutelako eta dirua behar dutelako. Emakume horiei erasotzailearengandik banatzeko aukera zaildu egiten zaie, egungo krisiak edozein irtenbide are gehiago zailtzen duelako. Lehen zaila bazen, orain laguntzen murrizketarekin (denbora-iraupenean edo emakume etorkinentzako baldintzen gogortzean) eta lan-ingurunearen eta ekonomiaren okertzearekin, zirkulu horretatik irteteko aukerarik ez dago. Emakume immigranteen artean batzuk beren herrialdeetara itzultzen dira. Beste batzuk hemen geratzen dira, beren seme-alabek etorkizun hobea izateko aukera izango dutelako.

Emakume horientzako bazterketa-zirkulu hori nabarmendu eta kroniko bihurtzen da, hobetzeko itxurarik gabe.

Zenbait immigrante gazteri dagokionez, haien egoerak azken hilabeteetan okerrera egin duela nabaria da. Familiarik, etxebizitza egonkorrik, baliabide ekonomikorik eta inolako sare sozial edo babesik gabeko gazteen kolektiboa da.

¹⁵ EDE Taldea honako hauek osatzen dute: EDE Fundazioa, erakunde nagusia dena eta ezagutzan oinarritutako zerbitzuak garatzen dituena (prestakuntza, aholkularitza, azterketak, sustapena...); Suspergintza Elkartea, programa eta ekipamendu soziokulturalak eta gizarte-hezkuntzazkoak kudeatzen dituena; ST3 Elkartea, euskarri teknikoko zerbitzuak garatzen dituena (kudeaketa, informatika, komunikazioa eta diseinua...) eta Suspertu SL gizarteratze-enpresa, ostalaritzako eta mantentze-lanetako zerbitzu osagarriak garatzen dituena.

Horien erregularizaziorako finkatutako zailtasunak direla eta, prestakuntzarako eta lanerako sarrera are zailagoa da, bizimodu independenteari ekiteko.

Erakundeetako laguntzetara (bi laguntza etxebizitza bakoitzeko, bi urte eta erdi gehiagoko errolda jarraitua laguntzetara heltzeko eta Oinarrizko Errentara heltzeko hiru urteak, lehen sei hilabete zirenak) heltzeko baldintzen gogortzeak sistematik at uzten ditu egoera pertsonalaren erregularizazio-prozesuan zeuden gazteak.

EDE Taldeak beste erakunde batzuekin partekatutako sarean egiten du lan eta harremana duen 150 immigrante gazteen herena inguru –berrogeita hamar bat– babes-sistemetatik at eta bazterketa-egoera larrian geratzeko arriskuan dago. Lan-itxaropen faltak ezkutuko lanera, txatarra biltzera... eramaten ditu eta oso modu ezegonkorrean jan eta lo egiten dute.

Horren ondorioz, gazte horiekin lan egiten dugun elkarteez panorama berri horri nola aurre egin joratu eta argitu behar izan dugu, laguntza-prozesuek oinarria galtzen baitute egoera berri eta zailaren aurrean. Hori guztia Bizkaia leku pribilegiatua dela jakinik eta orain aurrez beste probintzia eta komunitateetan gertatutakoa gertatzen ari da jakinik.

Gazte horiei egoeraren errealitatea erakusten zaie eta bi edo hiru urte gehiago irauteko, beren jaioterrietara itzultzeko edo aukera gehiago izan ditzaketen herrialdeetara joateko erabakia hartzen laguntzen zaie. Horien helburua lan egin eta beren kabuz bizitzea da, laguntza publikoen mende egon gabe. Ez laguntzak erregularizatzeko sistemak, ez lan-merkatuak ez dute itxaropen adre-mailerik eskaintzen.

Bi kolektibo, tratu txarrak hartzen dituzten emakumeena eta babes-sistematik kanpo geratutako gazte immigranteena; egungo krisiak lehendik zituzten zailtasunak nabarmendu ditu eta horien etorkizuna ilundu du. Lan-merkatuak eta ingurune ekonomikoak etorkizuna zailtzen dutelako epe laburrean eta ertainean, normalizatutako gizarteratze eta bizi ibilbideetan lan egin ahal izateko, bai maila pertsonalean, bai egitura mailan; horien aurrean irtenbideak bilatu behar lirateke eta erantzunak eman, orain daudena baino baztertuago gera ez daitezen.



Hirugarren sektorean lan egiten dugun pertsonok eta erakundeok azken garai hauetan erantzun beharreko galdera bat bada: “nola eragiten dizuete krisiak?”. Ohikoa izaten da hasperen egin eta geure buruari galdetzea: “nondik hasiko naiz?”.

Askotarikoak dira sistema ekonomikoak ekarri dituen ondorioak eta askotarikoak baita pertsonak eta kolektiboek horien aurrean erreakzionatzeko moduak ere. Zailtasun-egoeren aurrean alderdi esanguratsua izaten da laguntza jaso ahal izateko hara jo ahal izateko eta eskuratzeko sare soziala izatea (edo ez izatea). Sare hori egonkorra eta konfiantzazkoa denean, elkartasunezko eta elkar laguntzeko harremanak sortzen dira. Ildo horretatik, pertsona eta familia askok aurrera egin du konfiantzazko alorretatik jasotako laguntzari esker. Zaila da, ordea, askotan gauzak aldatzeko konfiantzan eta itxaropenean oinarritutako laguntza hori denboran luzatzea eta baliabideak eskas izaten hasten direnean, sare sozial ahula duten edo sare sozialik ez duten gizarte atal horiekin bat egiten dute, aukera bakar gisa gizarteak eskaintzen dituen laguntza publiko zein pribatuak dituztenekin. Azken urteetan, pobrezia-egoeran dagoen biztanleria areagotzen ari da eta laguntza horietara bideratutako baliabideak gelditzen edo murrizten ari dira. Horrekin batera, prestazioak jasotzeko lege-aldaketak gertatu dira eta oinarrizko beharrei edo lan-munduan txertatzeko edo gizarteratzeko prozesutik eratorritako gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrerarik ez dutenei zuzendutako laguntzak emateko baldintzak aldatu dira. Aldaketa horiek, era berean, laguntzak jasotzeko bete beharreko eskakizun eta baldintza berriak ekarri dituzte. Horren guztiaren ondorioz, pertsona eta familia asko Gizarte Zerbitzuetako sistemako aukeretatik at geratzen ari dira eta, gainera, agortuta ikusten dituzte sare sozialeko laguntza-aukerak. Orduan zer? Irabazi-asmorik gabeko erakundeok ezintasunezko eta sinesgaiztasunezko jarrerarekin bizi ditugu aldaketa horiek ezagutzen ditugun kasuen aurrean. Lehen erantzuna eman geniezaiekeen egoerei orain ia ezinezkoa da erantzutea eta nabarmen murriztu da esku hartzeko genuen tartea.

Arazo asko eskakizun berrietatik datoz, hala nola bizikidetzaren unitatearen baldintzak eta/edo errotze-denbora handitu izana eta abar. Alde batetik, etxebizitza topatzeko zailtasunak daude, alokairuen neurritz kanpoko prezioak, norberaren kargura adingabekoak izatearen trabak eta/edo atzerritarra izatea. Bestalde, laneko, prestakuntzako eta gizarte-hezkuntzako prozesuen jarraipeneko zailtasunak daude. Lan-eskaintzak ez izateak eta errotzeari dagokionez horietara heltzeko bete behar diren baimenak galtzeak pertsona eta familia asko gizarte-larrialdiko egoeretara eraman dute, etxebizitza, elikadura, osasun-sistemarako irisgarritasun normalizatua... bezalako oinarrizko beharrak asetzeko aukera galarazita.

Laguntzetara heltzeko baldintza berrien emaitza areagotzen doan ezegonkortasun soziala da: etxebizitzarik gabe, lanik gabe eta/edo laguntza sozialik gabe geratzen diren familia osoak eta bakarrik dauden pertsonak. Aterpetxetara sartzeko eta elikagaiak edo aldi baterako estalpea

eskaintzen duten erakundeetako ilarak gero eta handiagoak dira. Hezkuntza-prozesu irekiak behar baino lehen eteten dira eta erakundeetatik jasotzen ditugun baliabideak gero eta urriagoak dira.

Hirugarren Sektoretik bizi dugun gizarte-larrialdiko egoera salatzeko betebeharra eta konpromisoa dugu. Horrez gain, bidegabekeria horiek sortzen ari diren egiturak eraldatzeko lanean jarraitzeko eta pertsona guztiek eskubide berak izan ditzaten erreklamatzeko betebeharra eta konpromisoa ere baditugu. Eginkizun hori erakunde bakoitzak dituen potentzialtasun eta baliabideetatik abiatuta bete behar dugu eta, batik bat, sarean lan eginda, esfortzuak koordinatuta eta gure ahotsak bat eginda.

Horrez gain, Elkarbanatuz elkartean dauden beharrei erantzuteko lanean jarraitzen dugu, hainbat alorretatik gizarte-hezkuntzako prozesuak bultzatuta: laguntza integrala familiei eta adingabekoei, laneko eta prestakuntzako laguntza eta bizitokirako laguntza.



- Kaixo, egun on.
- Sartu mesedez eta eseri.

Bi adeitasun-formula horiek Gasteizko Acceder taldeari –Fundación Secretariado Gitano (FSG) fundazioaren prestakuntzarako eta enplegurako baliabidea– balio izan zieten, erabiltzaile batekin harremanetan jartzeko. Artikulu honetan Mari izenarekin aurkeztuko dugu erabiltzaile hori. Marirena noizean behin barruraino iristen zaizkizun kasu horietako bat da. Gizarte-bazterketako egoera argi ikus daiteke eta denok imajina dezakegun bezala, egoera hori maila askotako gabezia ugarirekin etortzen da. Hala eta guztiz ere, lehen unetik jada atzeman genuen ilusio kutsua eta horrek lotura-puntu gisa balio izan zigun eta, aldi berean, Mariarekin laguntza-lanari ekiteko jaurtiketa gisa.

Periplo horri harrerako elkarrizketarekin eta enplegarritasun-galdetegi deitzen dugunarekin eman genion hasiera. Egoera ekonomiko ezegonkorrean egon arren, trebatzen jarraitzeko interesa erakutsi zuen; geriatriarekiko interesa azaldu zuen, une horretan ezinezkoa zena, eskaintza-faltagatik eta beharrezkoa den hasierako titulazio-faltagatik. Puntu horretan, curriculum egiten lagundu genion eta berarekin batera lan-munduan txertatzeko ibilbidea diseinatu genuen; horrela, ABLE-etan, lan-txertaketarako enpresetan, garbiketa-enpresetan... curriculum ugari entregatuko zituen eta sarearen bitartez berarentzat erabat berria zena egin zuen, web orrialdeak, enplegu-atariak eta abar bisitatzera. Prozesu horretan guztian, Mari ohiko bizitzarekin jarraitu zuen, hiru kidez osatutako familia-nukleoan (bere buruaz gain, adingabeak diren bi seme-alabarekin), gizarte-larrialdiko etxebizitzan (egonaldirako denboramugarekin), irregularki kobratzen zuen elikadura-pentsio oso eskasarekin, ia sinbolikoa zen gizarte-larrialdiko laguntzarekin (gaur OE) eta gure ustez gogorrena zena, existitzen ez zen harreman-sare eta familiaren laguntzarik gabe. Hala eta guztiz ere, bidea elkarrekin egiten jarraitu dugu, guk beti sentitu izan dugun moduan, Mariren pertzepziotik oso urrun: “zuengatik izango ez balitz, zer egingo nuke nik zuek gabe?”; ibilbide horren emaitza gisa, hartu-eman horren, elkarrengandik ikaste horren emaitza gisa, elkarrizketen fasean sartu da: hainbat enpresatatik deitu diote eta elkarrizketak prestatu ditugu, sartu eta lehenengo agurretik hasi eta bukaerako agurreraino. Bost bat elkarrizketa egin zizkioten, baina ez zioten enpresa batetik ere deitu. Ezezko bakoitzak frustrazio berria dakar, berriro jaikitze beharra, bere buruari eta kezkatzen duten seme-alabei eta laguntzen ez dion, baina zalantzan jartzen duen familiari gai dela frogatzeko beharra, aurrera aterako dela frogatzekoa, bi seme-alaba (egun nerabezaroaren erdian daudenak) aurrera ateratzeko abian jarritako gaitasunek, zalantzarik gabe badituen beste gaitasun batzuekin batera (ezagutu baino ez dira egin behar) eta eskuratzen ari denekin, enplegua topatzen lagunduko diote eta horrek maila sozialean

integratuta mantenduko du. Enplegu-eskaera berri zuen berriro ere, prentsa espezializatua kontsultatu zuen, deiak egin zituen enplegu-eskaintzetara eta, azkenean, ireki berri genuen egun batean, berarengan ohikoa zen bezala, isiltasunean, hurbildu eta deitu egin ziotela jakinarazi zigun eta erraz erantzundako zenbait galderen ostean, LANEAN HASTEKO jantziaren bila joateko esan ziotela. Mari, emozioetan eta adierazpenetan neurritsua, irribarre arina atera zitzaion. Guk, gure aldetik, alaitu zedin eta iraunkortasunak eta "borrokak" bere sariak dituela uler zezan ahalegindu ginen. Kontratu horren ostean, beste hainbat lotu zituen jarraian, ordu batzuetakoak soilik, baina gizarte-zerbitzuei jakinarazi zien, bere "betebeharra" betez. Diru-laguntza lanetik kobratzen zuenarekin "konpensatzen" hasi zitzaizkien, "merezi al dit lan egiteak, beste alde batetik kendu behar badidate?". Bai eta BAI. Ez sarrera ekonomikoagatik bakarrik, horrek ekartzen duen egituragatik baizik, egunero beste alor batzuetara joan beharrak ematen duen egituragatik eta nolabaiteko independentziagatik. Bestela izan ezin zitekeen moduan, eskuetako tendoietakoa garai bateko lesioak lanetik baztertuko du. Eten egin beharko du. Ez da ezer gertatzen, lehentasuna osasunak du. Laguntzak behar dituenarentzat daude. Lehenik eta behin, operatu, sendatu eta berriro hasiko gara. Oraingoz OEren izapideak berrituko ditugu, eta hor, etsiago dagoen Marirekin egingo dugu topo, berreskuratuta zuen bultzada galdua izango du hein batean eta "laguntza" inoiz baino gehiago beharko du. Aurreko kasuak aurrera egiten jarraitzeko balio digu, sendotzeko, gure helburua den honetatik: *nagusiki ijito-komunitatearen sustapen integrala, kultur identitatearen errespetutik, pertsonen eskubideetarako, zerbitzuetarako eta gizarte-baliabideetarako irisgarritasuna gainerako herritarrekiko berdintasun-baldintzetan bultzatuz, borrokatzen jarraitzeko. Eguneroko zereginetan topatzen ditugun eta zoritxarrez topatuko ditugun pobrezia eta gizarte-bazterketako egoerak asko direla jabetuta, 2012. urteari begira erronka hauek proposatuko ditugu: 1. **Gizarte bazterketako eta diskriminazioko kasuak detektatzea.** 2. **Aholkularitza eta laguntza kasu guztietan.** 3. **Prestakuntza-jarduerak, erabiltzaileak egoera horiei aurre egiteko eta egoera horiek hobetzeko beharrezko tresnekin eta gaitasunekin hornitzeko xedearekin.** 4. **Pertsonen eskubideak urratzen dituzten kasu guztien salaketa.***



Errudunak bilatzea baino hobea da gertatzen ari dena ulertzea eta gerta daitekeena aurreikustea. 29ko krak ekonomikoaz geroztik krisirik okerreanean murgilduta ekin dio XXI. mendeari mendebaldeak; eraikitzea hamarkada asko kostatako Ongizate Egoera hiru urtetan porroteraino zartatu duen krisia. Errudunak identifikatzen saiatzea interesgarria izan daiteke historiari edo –nekez gertatuko dena– justiziari bere lekuan jar ditzan, baina bilaketa horretan gehiegi tematzeak agian presazkoagoa den irtenbidea bilatzetik distraituko gaitu.

Ikuspegi teknikitik, egungo krisiak azalpen konplexua du. Krisiaren ondorioen deskribapena, berriz, oso sinplea da: langabezia-tasa oso altuak, enplegua mantentzen dutenen lan-baldintzen okertze nabarmena, gizarte-laguntzen murrizketa, antolatu berri ziren biztanleria babesteko oinarriko sistemak mantentzeko estatuen ezintasuna, finantza-sistemaren ezegonkortasun luzea... Ekaitz perfektua izango balitz bezala, turbulenzia bakoitzaren barruan badirudi beste bat sortzen dela eta murrizketa-neurri bakoitzaren iragarpenari beste batek jarraitu behar diola, lehenengoa ez baita nahikoa merkatuen lasaitasuna mantentzeko eta zailtasun gehien dituzten herrialdeei atsedena emateko.

15 Ildo horretatik, mendebaldeko gizartearen pobretzea kontzeptu ekonomikoa baino gehiago da. Batez besteko aritmetikoaren atzean beti daude hainbat errealitate. Zubi eta jaiegun bakoitzean hotelak bete egiten dira, zaila da modako jatetxean lekua topatzea eta terrazak berehala betetzen dira eguzkia atera orduko. Hala eta guztiz ere, hainbeste ikusten ez den, baina baden eta batez besteko errentaren jaitsiera azaltzen duen errealitatea dago. Gero eta handiagoak diren kolektibo marjinalen errealitatea da. Horietako zenbait kide edukiontzia arakutzen, supermerkatuetako eta tabernetako ateetan eskatzen edo semaforoetan paperezko mukizapiak saltzen ikusten ditugu. Icebergaren tontorra baino ez dira. Gehienek isiltasunean galtzen dute itxaropena, aurrezkiak nola desagertzen diren ikusita edo senideei eta lagunei laguntza eskatu –eta askotan behin eta berriro eskatu– beharreko trantzetik igarotzean. Gure gizarteko gero eta ehuneko handiagoak ez du itxaropenik ikusten etorkizunean. Oraina kendu diete eta etorkizuna ere galtzeko puntuan daude.

Gizakiaren moduko erakundeek hain egoera negatiboan egiten duten lana funtsezkoa da. Ez dago arrazoietan asko sartu beharrik: laburbilduz, jarduera oinarritutako kolektiboek une zailtan hazteko duten joeran datza, itxaropenak ilunak direnean. Aldi berean, diru-sarrerak murriztu egiten dira defizitak itotako administrazioen murrizketen ondorioz. Norberaren elkartasuna, errenta maila gehiegi okertu ez dela ikusi duen pertsona bakoitza soilik jabetzen da bere laguntza ezinbestekoa dela. Ez ordea diru-laguntza publikoen erorketa konpentsatzeko adina.

Hori horrela, mantendu daitekeen laguntza-programa bakoitza orain irabazitako bataila da. Helburua ez da gaurko eguna soilik amaitu edo baldintza ekonomikoagoetan urtebeteko helburuak betetzea. Arazoak ez dira gaurtik biharrera konponduko. Datorren hilaren 1ean edo datorren urteko urtarrilaren 1ean jaiki eta ez dira arazo ekonomiko guztiak konponduta egongo. Hori ezinezkoa da eta denok dakigu hori. Hortaz, aldi luzean gizarteko segmenturik arbuiatuena eusteko eta desesperazioan erortzea saihesteko Gizakiaren jardura funtsezkoa izango da.

Ongizate Egoerari eusteko erreklamazioak askotan zaindutako kritikei lagunduta joaten diren giro politikoan egin behar dira gainera, eta ez Gizakia bezalako erakundeen jarduerara eta hirugarren sektoreko beste hainbatetara begira, horiek bultzatzen dituen elkartasun *pribatuaren* filosofiara begira baizik. Ez zaie erakunde horiei bultza egin behar, estatuei beren betebeharrei aurre egitea behartu behar zaie, hala diote askok. Argudio horretan sakontzea, bestalde, errespetagarria dena, pozoitsua izan daiteke dena delako arrazoiengatik estaldura publikoaren aterpetik kanpo geratzen diren eta ahulenei hainbeste urte arreta eskaintzen daramaten erakundeentzat. Estaturik aberatsena eta babesleena ere ez da iritsi herritarren behar guztiak asetzerara. Kasu askotan, ezagutzen ez dituelako edo ez dituelako behar gisa katalogatuta. Hori horrela bada, herritarrenganako hainbesteko aberastasunik eta arretarik inoiz izan ez duten herrialdeei buruzko ohar oro onartuko da.

Gizakia Fundazioak datozen urteetarako parean duen lana heroia-aren eginkizunaren moduko zerbait da. Txikitzen ari diren baliabideak erabiltzea gero eta handiagoak eta anitzagoak diren beharrei aurre egiteko. Adoretu eta esker on gehiegi espero gabe egin behar du. Ez du axola. Benetako heroiek ez dute inoiz halakorik espero.



Abegi Zentroan sofán eserita, neke eta logura aurpegiarekin kafearen zain dauden pertsonak topa ditzakezu. Gau horretan gaizki egin dute lo. “Ez zegoen sabairik, ez zegoen aterik”.

Murtziako eta Almeriako soroetan lan batetik bestera ibili ondoren, Bizkaian nora ezean dabiltzan immigrante gazteak dira. Batzuk atxilotuak izan dira eta indarrean dagoen egozteko agindua dute. Hemen hobeto egoten da “poliziak ez baitu botatzen”.

Lan egiteko etorri ziren eta orain bizirautean egiten dute lan.

Abegi Zentroan hasten dute eguna. Gosaria, dutxa, arropa garbia. Eguerdian, Caritaseko jangelara. Arratsaldea nora ezean, ilundu eta abandonatutako nabeetara, hutsik dauden etxeetara edo kutxazainetara sartu daitezkeen arte. Horietako zenbait, zorte gehien dutenak, adiskideek edo herrikideek hartuko dituzte egun pare batez etxe zikin eta garestietan, bertan erroldatzeko eskubiderik ez duten eta kontraturik ere ez duten horietan.

Gaua arriskutsua da, ordea. Estalpea ematen dien sabaiak ez die babesten. Ez dago intimitate segurua bermatuko dien aterik. Beren buruak mehatxatzen ditu: berotzeko suak sutea eragin eta bi lagun hil ditzake, berriki Santurtzin gertatu zen moduan; polizia ustekabearen ere etor daiteke, bizilagunen batek deseroso sentitu eta salaketa jarri duelako; leku berean babestera etorritako adiskideak berak liskarren arrazoi izan daitezke.

Eguneroko biziraupen-zirkuituak –non gosalduko dut, non eta noiz jango dut, non egingo dut lo galderetan oinarritutakoak– pertsona horietako askoren denbora eta bizi-intentsitatea hartzen du.

Horietako berrogei bat lagunekin dugu harremana. Batzuk urrunetik etorri ziren duintasunez bizitzeko; beste batzuk, berriz, ustekabeko adarkadak jaso dituzte bizitzan: autonomia mehatxatzen duen lanaren galera, oinarritzko munduak zauritzen dituzten haustura afektiboak, beren gaitasunak porrotera eramaten dituen gaixotasun mentala eta alkoholetan itotzen duena.

Nola erreakzionatzen du gizarteak? Alde batetik, aparteko diskurtsoak idazten dira, hemen inork nahi ez dituen lanak egitera eta gure pentsio-sistema salbatzera etorritakoei buruzko ontasunez hitz eginda. Hori krisia lehertu aurretik zen, ordea. Orain “dagoen lan apurra kentzera, gizarte-laguntzez aprobeztatzera eta kolpe zorririk jo gabe bizitzera etorritako pertsonak dira”. Bitxiena, aldiz, aparteko diskurtsoekin batera politika gogorak etortzea da: atzeritartasun legea, OE jasotzeko baldintzen zorrotasuna...

Ez da onargarria gaur egun Euskadin kalean lo egin behar duen jendea egotea. Ez da onargarria gaur egun Euskadin gose den jendea egotea.

Milurteko lehen helburua gogora ekarriz amaituko dut: pobrezia, bazterketa eta gosea erauztea. Ez al gara hori lortzeko gai izango?



**Aitziber Bañuelos. Familia eta Emakumeen Gizarteratzeko Atala.
Margotu Elkarte.**

Pobreziaz hitz egiten dugunean, pertsonen oinarritzko beharrak asetzeko baliabideen faltaz ari gara. Oinarritzko beharrez ari garenean, berriz, ez gara behar materialez soilik ari, gizakiaren erabateko garapena bermatzen duten behar afektibo eta sozialez baizik. Nahiz eta pobrezia baliabide ekonomikoez haratagoko dimentsio anitzeko faktore gisa aztertu behar dugun, pobrezia-kontzeptuaren alderdi ekonomikoan oinarrituko gara. Baliabide ekonomikoen gabezia gisa deskribatuko dugu, baina ez baliabide ekonomikoen falta gisa soilik; izan ere, horrela, pertsonen oinarritzko beharrak aseta soldata-ordainketarik ez dutenak, baina pertsonaren bilakaerarako eta familien euskarrirako ezinbestekoak diren jarduera guztiak albo batera utziko genituzke. Zaintza, hazkundera eta etxea mantentzeko jardueraz ari gara. Puntu honetan igarriko dugu emakumeek gure gizartean sufritzen duten diskriminazioa. Izan ere, jarduera horiek inolako konpentsazio ekonomikorik gabe nagusiki emakumeek garatzen dituzte, haien gain erortzen dira ia modu eskusiboan, eta gainera, enplegu formalerako irisgarritasunean desabantaila-egoeran jartzen dira, lehiakorra den lan-eremuaren aurrean, horrek merkatuaren beharrak lehenesten baititu eta ez familiarenak.

“Ana, 34 urte. Anak prostituzioan jarduten zuen. Egun batean, mahai gainean kolpea eman eta garatzen zuen jarduerari amaiera ematea erabaki zuen; haurdun zegoen, alaba izango zuen eta bizi berriari ekin nahi zion. Horrela, bere burua berreraikitze bideari ekin zion. Horretarako, borondate handia eta administratziotik jasotzen zuen 426 euroko laguntza ekonomiko ezegonkorra, Gizarteratzeko Errenta Aktiboari zegokiona, zituen. Ez zeramanez urtebete erroldatuta, oraindik ez zuen OE jasotzeko eskubiderik. Oraindik ez zuen lanerako baimenik eta enplegurako prestakuntza urria zuen.

Ez zion axola, ordea, moldatuko zen, apur bat itxarotea zen kontua. Merezi zuen, bai alabarengatik eta bere buruarengatik. Administratziotik behin eta berriro errepikatu zioten: “Eutsi Ana, egin dezakezu, gutxi falta da. Ezin duzu lehengo bizimodura itzuli. Laster izango duzu burua jaso eta aurrera egin ahal izateko behar adina diru. Ikastaroren batean sartuko zara, ziur. Itxaron apur bat gehiago”. Astelehenean, Anak gure atea jo zuen negarrez. Hurrengo hilean amaituko zaio jasotzen ari den laguntza eta ezin du OE izapidetu, dena aldatu delako, ez da egun baldintza gisa eskatzen duten hiru urte eta erdiko erroldara iristen. Ezingo du logelaren azpierrementamendua ordaindu, ez du aparatuko duen inor, ez du alokairu-kontraturik, ezta inolako ordainagiririk ere. Eskudirutan ordaintzen du. Ez du lan-baimenik, ezta enplegua eskuratzeko lanbide-prestakuntzarik ere eta lehengo bizimodura itzultzea planteatzen ari da. Laguntza eskatzea erabaki zuenean, ordea, une hartan bere bizitza arriskatu zuten eta laguntza jaso zuen, baina baita prostituzioan berriz jardunez gero, alabaren jagoletza galtzeko arriskua izateko mehatxua ere. Beldur da”.

Emakume gurasobakarra eta immigrante atzerritarra:

Emakumeak enplegua eskuratzeko dituen zailtasunen aurrean, kasu gehiegitan topatuko ditugu mendekotasunezko bi egoera: bikotearen diru-sarrerekiko mendekotasuna eta, banaketaren kasuan, prestazio publikoekiko mendekotasuna. Bi kasuetan, nabarmena da autonomia falta erabakiak hartzerako garaian, bizi-proiektuari dagokionez, eta autoestimua eta norberaren balioaren autopertzepzioa gutxitzen duen segurtasun faltaren sentazioa. Hazkundean bakarka aurre egitea erabakitzen duen emakumeak pobrezian erortzeko arrisku handiak ditu; alde batetik, familiako sostengatzaile bakarra izatearen erantzukizunari egin beharko dio aurre eta, bestetik, horrek enplegu duina, egonkorra eta kalitatezkoa lortzeko ekartzen duen zailtasun gehigarriari eta kasurik onenean, enplegua lortuz gero, hura mantentzeari.

“Maria, 40 urte. Aitak lursail txikia utzi zion oinordetzan bere herrialdean eta balio ekonomiko handirik ez duen arren, ez du saltzea lortzen eta horrek OE jasotzea eragozten dio. Semea eta alaba ditu, biak 6 urtetik beherakoak eta bakarrik zaindu behar ditu, bikote ohia beste komunitate batean bizi baita; gainera, urruntze-agindua du. Bikote ohia ere langabezian dago eta, beraz, ez dio mantenu-pentsioa ematen; kasu honetan, diru-sarrerarik ez duelako eta ez nahi ez duelako. Bien arteko harremanean gertatutakoa gertatuta ere, Mariak ez du salatu, bikote ohiak dirua duenean haurrak zaintzen dituela ziur dagoelako. Hainbat lan-eskaintza izan ditu, etxe-zerbitzuan denak. Lanbide-prestakuntza urria du. Lehen hezkuntza ere ez zuen ikasi. Bi lan hartu zituen, baina bietatik bota egin zuten. Txikiak gaixotu egin ziren, ez zuen norekin utzi eta ez zioten lanetik faltatzeko baimenik eman. Lanbideko prestakuntza-ikastaro batetik ere deitu zioten, baina gauza bera gertatu zitzaion. Maria bakarrik dago, lagunduko dion familia- eta gizarte-sarerik gabe. Bi logela azpialokatu ditu, alokairua gutxienez zailtasunik gabe ordaintzeko eta Lanbidetik jasotzen duen laguntza txikiarekin (GEA, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa) eta batzuetan kobratzen duen pensioarekin, eramangarriago egiten zaio bizi duen ezegonkortasuna. Beldur da”.

... indarkeriaren biktima:

Indarkeriazko harremanek ezegonkortasun-egoerak eragiten dituzte sufritzen dituzten emakumeengan.

Familiaren testuingurua gizarte-antolaketako egiturarik oinarrikoena da eta indarkeriazko harremanak dituzten familia motek horietako kide guztien sozializazioa bultzatzen eta iraunarazten dute emakumeen kontrako diskriminazioan. Kasu horietan, etxea ez da kide guztiek ekitatean laguntzeko eremua. Emakume horiek ez dute familia-baliabideei buruzko erabakietan parte hartzen. Errealitate horrek independente eta autonomo izateko ezgai ikustera eta abusuzko harremanean jarraitzea eramaten ditu.

“Paloma, 28 urte. Ez du bikote-harremanarekin jarraitu nahi. Mutilak ez du ondo tratatzen. Banandu eta alabarekin alde egiteko erabakia hartu duenean, mutilak ez dio utzi, Gizarte Zerbitzuetatik badakielako familia-nukleoa baturik mantentzea dela OE jasotzen jarraitzeko

bermerik onena edo, gutxienez, adingabeoarekin geratzekoa. Palomak 2 urte behar izan ditu banandu eta biktimatzat zuen tratu txar psikologikoa gehiago ez jasateko erabakia hartzeko. Indarkeria mota hori frogatzea ez denez erraza, ez du salatuko, harengandik urrundu besterik ez du egin nahiko. Bakarrik egingo du alde, ordea, adingabea bilakatuko delako familiako diru-sarrera bakarra, eta orain bikote ohia duena ez dago "bere diruari" uko egiteko prest. Hala adierazi dio Palomari eta hau une hauetan alabarik gabe, laguntzarik gabe eta senide baten etxean dago, etsita, lan-baimenik ez duelako. Hil honetan Elikagaien Bankuari eta senide baten laguntzari esker ari da jaten, baina senideak adierazi dio egoerak behin-behinekoa izan behar duela, haren egoera ere oso ona ez delako. Eta bai, dagoeneko joan da bururatu zaizkion erakunde guztietara. Ateak jotzen hilabete eta erdi igaro ostean (erakunde sozialak, Administrazio Publikoak, jagoletzaren eskaera eta abar), gezurra badirudi ere, egoera horretan dago oraindik ere. Beldur da”.

Aurreko guztia dela eta, pobrezia eta generoaren artean dagoen lotura estua adierazi behar dugu. Pobrezia- eta ezegonkortasun-egoera askoren artean horiek aukeratu ditugu; izan ere, komunitate bereko gizonezkoekin alderatuta, emakumea emakume izateagatik desabantaila-egoeran dagoela uste dugu lan-munduan eta gizartean txertatzerako garaian, eta *aukera-berdintasuna* oraindik ere epe luzerako helburua da. Horri emakumezko gurasobakarra izatea, immigrante etorkina, indarkeriaren biktima eta lanbide-prestakuntza baxua gehitzen badizkiogu, ondasun eta baliabideetarako irisgarritasuna eta lan-mundu formalaren merkatuan sartzea zailtasunez eta etsaitasunez betetako ibilbide bilakatzen da, egungo egoera ekonomikoak eta murrizketa sozialek larrituta eta emakume horien eta beren familien gizarteratzea ia utopia bilakatzen da.



Peñascalen, pertsonen gizarteratzean eta laneratzean lanean dihardugu, bereziki bazterkeria egoeran dauden gazteekin “eskola porrota” dela eta.

Helburu hau aurrera eramateko, betidanik oso argi izan dugu, lanean ari garen gizarte egoerari, gertatzen diren aldaketeei, hainbat arlotan (pertsona, gizarte, lan-merkatu, politika instituzionalei) moldatzeko oso adi egon behar gara.

Aurten, helburu horiek, pertsonen gizarteratze eta laneratzeko ibilbideen sendotzearen alde lan egitera eraman gaitu.

Lan horiek, orain adierazitako, ondorioak ekarri ditu.

- Ibilbidearen azalpena; formakuntzan ari garen erakundeak, politika instituzionalaren erakusle, hezkuntza ibilbidea zatitzeko eta bakoitzak berean aritzeko arriskua dugu. Horrela, ibilbidean bide ezberdinak eraikiz.¹⁶
Gure asmoa, heziketarako ditugun baliabide guztiak pertsonen zerbitzura jartzea izango litzateke. Era horretan, ibilbideak pertsonaren premietara zuzenduta egongo dira, bizipenez beteta eta bakoitzaren egoerara moldatuak joan-etorrekin eta abar.
- Pertsonak; pertsonen profila aldakorra da, hortaz, aldaketeei adi egon behar gara, ibilbideak moldatzeko. Adin gazteetan, jokaera desorekatu larriak dituztenei erantzuna ematea eskatzen zaigu. Beste adin batzuetan, araudi aldaketek eta gizarte murrizketek, ibilbide luzeagoak pentsatzera eramaten gaituzte, lana aurkitzea gero eta zailago delako. Ezin dugu ahaztu, enplegurako ikastaroetan parte hartzeko baldintzak gero eta zailagoak direla. Ikastaro hauetan sartzen ez diren pertsonentzako, baliabide berriak aurkitu behar izan ditugu eta homologazioak lortzen saiatu.
- Osoko laguntza: pertsonekin lehen esan dugunaren arabera, gizarte-murrizketek ere, hezkuntzan zuzentasuna lortzeko, baliabideak lortzera eraman gaituzte. Hau da, uste dugu pertsonak hezkuntzaz baliatzeko oinarrizko beharrezkoak izan behar dituztela.
- Bazterketa egoeraren arriskua; bazterketa egoeran dauden taldeek, gizarte aldaketen menpe daude. Une honetan, lan-merkatuek eskatzen dituzten kualifikazioen eskaerak askoz ere handiagoak dira, horrek egiten du, kualifikazio gutxi edo ez dutenek, bazterketa egoeran geratzeko arriskuan izatea.
- “eskola porrota”; adiera horrek, 18 urte bete ondoren DBH-ko titulua ez zutenei, adierazten zitzaien. Gaur egungo egoerarekin, prestakuntza baxua dutenen enplegu suntsiketa ikusten ari gara. Horregatik, oraingo adierazleak aldatu dira eta “goiztiar eskola porrotaz” hitz egiten dugu. Horren esanahia, “Bigarren hezkuntza (derrigorrezkoa) gehienez gainditu dutenek eta

¹⁶ “Nosotros entendemos las vías en la enseñanza secundaria como un producto del diseño curricular y normativo, es decir, el planteamiento de la oferta del sistema educativo en niveles y ramas, la definición del acceso y de las salidas, así como la conectividad entre estos niveles y sus modalidades. En cambio, los itinerarios tienen un componente biográfico fundamental (Walther, Stauber, 2002). Se construyen a partir de las trayectorias personales de los jóvenes que se configuran con base en las decisiones que van tomando a lo largo de su escolarización. Así, los jóvenes escogen entre diferentes opciones. Merino, R., Casal, J. y García M. ¿VÍAS O ITINERARIOS EN EL SISTEMA EDUCATIVO? LA COMPRESIVIDAD Y LA FORMACIÓN PROFESIONAL A DEBATE Revista de Educación, 340. Maiatza-abuztua 2006, orriak. 1065-1083

horren ondoren ikasketekin edo formakuntzan jarraitu ez dutenen, 18 eta 24 urte arteko gazteen kopurua” da. Horregatik, Peñascal Kooperatibaren asmoa, 1 maila (EB sailkapenaren arabera) baino gorako kualifikazioak lortzea izango litzateke.

- Erakundearentzako ondorioak;
 - o Ohiko formakuntzatik at geratzen diren pertsonentzako, baliabide berriak lortzea, ahal den lekutik, erakunde publiko edo pribatu, edo fondo propioen bitartez lortzea.
 - o Pertsonak ibilbide luzeagoak egitera bideratu edo motibatu, horrela, kualifikazio maila altuagoko titulazioak edo agiriak lor daitezkeelako.
 - o Hezkuntza eskeintza berriz moldatu, profil berrien premietara egokitzeko, eta iraupen luzeagoa izan dezaten.
 - o Enplegu-zoko berrien sorrerara adi egon, eta lan-merkatuan sartzeko aukera gehiago emango duten ikastaroak eskeini.

2012. urtea zaila izango dela iragartzen da, eta dudarik gabe, ahultasun egoeran, arrisku egoeran, laguntza sare gutxiago eta prestakuntza gutxiago dutenentzako, hala izango da. Horregatik, aurtan gure helburua, joan den urtean hasitakoari jarraipena ematea izango litzateke, hurrengoa azpimarratuz:

- Osoko ibilbideen disenuan aurreratzea:
 - o Orientatzaileak indartzea.
 - o Ibilbide hauen ebaluazio mekanismoak lortzea (ez linealak).
 - o Ibilbide hauen agiriak Europakoekin parekatzea.
- Erakundean boluntarioritza indartzea.
- Lan-merkatuara adi egon, eta horrek lanbide prestakuntzarako dituen ondorioak ondo aztertzea.



2012. urteari egiturazko dimentsioa duen krisi ekonomiko, politiko, sozial, ingurumeneko eta kulturalaren sarreran gaudela jakinda ekin diogu. Badirudi hasi berri dugun urte honek krisiaren goren unera eramango gaituela, eta duela gutxi arte krisirik bazenik ukatzen zutenak orain horren izaera ziklikoaz konbentzitzen saiatzen ari dira; iragankorra da kontsumo-hazkundearen, lehengaiak eta energia alferrik galtzearen logika kapitalistara bizkor itzultzeko aukerari dagokionez, eta errukigabea ekosistemarekiko, eta erasotzailea, aldiz, giza eskubide unibertsalen aurka.

Aldiz, gure *modus vivendiren* dogma faltsuak urratuko dituen garai berriranzko trantsizioari ekin diogu, nahitaez beste garai berri batzuei bide emateko. Neoliberalismoa edo neokontserbadurismoa, nahi den bezala, oraingoz nagusitzen den doktrina ideologiko eta ekonomizista da. Milton Friedman-en dizipuluek diseinatutako bidaia-orriak Europa zeharkatzen du Ongizate Egoeraren oinarriak deseginez (Espainiako kasuan berez urriak), zerbitzu publikoak pribatizatuz, eskubideak merkaturatuz (etxebizitza, pentsioak, osasuna....) eta bizi-eta lan-baldintzak ezegonkortuz, keynesinismoaren aurreko garaietaraino atzera eramanez.

Fundamentalismo liberalaren politika birbanatzaileekiko, bermatutako gizarte-babesarekiko eta gizarte-zerbitzuen sistemarekiko erasoen testuinguruak hirugarren sektorea eraldatzera behartzen du, baita EAEn ere, etorkizuneko erronka berriei aurre egite aldera. Hirugarren sektorea egoera zaila bizitzen hasi da bateraezina den dualismoaren erdian: alde batetik, krisian dagoen administrazioaren testuinguruan zerbitzuak eskaini behar ditu eta, bestetik, presionatuta sentitzen da, eskaera areagotu egingo baita krisi horren ondorioz.

Nekez bateragarria den dualismoa da bere izaera propioari eragiten diona ere. Hirugarren sektorearen hedapena, hazkundera eta profesionalizazioa azken urteetan diru publikoarekin finantzatu da nagusiki eta horrek orain krisian dagoen administrazioarekiko mendekotasuna elikatu du eta gero eta gehiago eta etengabeakoak diren murrizketekin irabazi-asmorik gabeko sektoreak kudeatutako edo ez kudeatutako funtsezko gizarte-zerbitzuak eskatu egiten ditu (edo, kasu batzuetan, baita zuzenean likidatu ere).

Gizartean egoera ahulenean dauden geruzen aurka gero eta maizago egiten dituzten eta gero eta larriagoak diren eraso neoliberalen aurrean sektoreak ez daki bere izaera kritikoa, asaldatzailea eta gizarte mailakoa salatzen duena astindu, edo bere ekintza politika horiek aurrera eramatearen mende utzi zerbitzuen eskaintzaile soil gisa betetzen duen biziraupeneko eta garrantziaren sen korporatibistan sartuta.

Euskadiko hirugarren sektoreak indarrak biltzeko eta itunak bilatzeko erronka du, baina ez sektore barruan bakarrik, baita handik kanpo ere, alde batetik, mesedegarria ez den testuinguruan indarrean dauden arauen (Gizarte Zerbitzuen Legea edo Oinarrizko Errenta) irakurketa eta garapen progresista bultzatzeko eta, bestetik, beste eragile batzuekin ekimen

sozial eta politiko jakinetan bilakatuko diren gutxieneko oinarriak finkatzeko, gizarte-ongizate orokorraren defentsan.

Hirugarren sektoreak "beste mundu bat posiblea" dela uste badu, ez dago zalantzarik garai berriaren diseinuari ekin zaiola (nahi den noranzkoan eta eragileekin ez izan arren) hobe izango da eraikitzeaz dagoen eredu antisozial, antidemokratiko, autosuntsizaile eta insolidarioari alternatiba eraikitzea tokioa denetik mundu mailakora zuzenduta eta, alderantziz, gizadia erasaten duten arazoek planeta osoari eragiten baitiote.

Bestalde, RAIS Euskadi elkarteak lotura du sektoreak EAEn jasan behar dituen erronka eta zailtasunekin eta, beraz, sektoreak duen tamaina mugatua dela eta, gure itunetan sakondu eta sinergia berriak sortu behar ditugu, tamaina eta baliabide handiagoko erakundeak pribilegiatzen dituen ziurgabetasun handiko agertokian. Administrazioek azken hiru urteotan jasan dituzten ondoz ondoko murrizketak gero eta handiagoak izan dira, eta horiei banku bihurtzeko prozesuan kutxetako gizarte-ekintzek jasan duten murrizketek 2012rako zailtasun berriak eta handiagoak ekarriko dituzte. Bereziki Bizkaiko gure zerbitzuetan sortuko dira zailtasun horiek eta erabakitasekin eta irudimenarekin egingo diegu aurre.

Gizarte-zerbitzuen hain esperotako zorroaren eta maparen argitalpena, eskumen instituzionalen definizioa, Lanbideren abiada eta erakundeak eta zerbitzuak kudeatzeko eta finantzatzeko irizpideak eta formulak argitzea, zalantzarik gabe, gudan eragina izango duten eta hirugarren batzuen mende dauden faktoreak dira.

Badira barne mailakoak diren beste baldintza batzuk eta denboraleari aurre egiteko horietan ahalegindu gaitezke eta hala egin behar dugu: helburu, ikuspegi eta balioetan sakontzea, esku-hartze eredua eguneratzea, gure lanaren oinarri diren pertsonen protagonismo handiagoa ematea, ikuspegia profesionalen eta boluntarioen garapenean jartzea, etengabeko hobekuntzarekin jarraitzea gure kalitatezko politikan oinarrituta eta gure antolaketa-dimentsioa indartzea, besteak beste.

RAIS elkarteak bazterketa-egoerarik larrienean dauden pertsonengana bideratzen du ekintza. Garai berriek erronka berriak planteatzen dizkigute. Krisia eragina izaten hasi da. Lan- eta gizarte-laguntzaren alorrean berriro txertatutako pertsona kopuruak lan-munduko sarrera berriak gainditzen ditu. Adore-falta zabaltzen ari da eta ikuspegi-faltaren aurrean areagotu egingo da. Horrek guztiak puntu zaugarri horiek indartzera behartzen gaitu.

Baliabideetarako irisgarritasunaren alorrean, tentsioa eta ondoeza nabarmenak dira. Prestazio ekonomikoak eskuratzeko irizpideak gogortu izanak, bereziki, biztanleria migratzailean izan du eragina. Gugana itzultzen diren jatorrizko erabiltzaileen kopuruak eta ehunekoak gora egin dute. Osasun mentaleko arazoak zabaldu egin dira sisteman erantzun egokirik topatu gabe...

Egia da etorkizuneko erronkak erraldoiak direla, baina duela urte asko Hebe de Bonafini-ri entzun nion bezala, galdutako borroka bakarra alde batera utzitakoa da.



2011. urteko pobreziako eta gizarte-bazterketako egoera handienak aztertzeko atzera begiratzen dudanean, behin eta berriro etortzen zait gogora Gizarte Langintzako Eskolako garaietako apunteetako paragrafo laburra: "gabeziak indartu eta atzera elikatzen dira". Alor akademikotik eguneroko bizitzara bideratzeak, ordea, horrek pertsonarentzat dituen ondorioak ikusita, benetako hotzikara eragiten du zalantzarik gabe.

Pobreziako edo gizarte-bazterketako egoerak zer lekutan kokatu erabakitzea erraza ez den arren, oinarrizko beharren erantzun eskasak lehen postuan egon behar lukeela uste dugu haren ondorioak direla eta. Elikaduraz, jantziez eta oinetakoez ari gara. Horri dagokionez, esan beharra dago gero eta gehiago direla elikagaiak eskatzen dituztenak, diru-sarrerarik ez dutelako edo dituzten sarrerak behar adinakoak ez direlako. Jantziari eta oinetakoei dagokionez, neguaren etorrerarekin batez ere, hotzetik babesteko jantzi eta oinetako egokirik ez duen pertsona kopurua nabarmen areagotu dela ikusi dugu.

Ondoren, etxebizitzaren egoera ere garrantzi maila berean egongo litzateke, pertsonen bizitzan duen eraginagatik. Alokairuko etxebizitzaren eskaintza urriaren ondorioz, prezioek gora egiten duten bitartean, errentarien eskakizun maila minimora murrizten da etxebizitzaren egoerari eta ekipamenduari dagokionez, eta kasu askotan, infraetxe moduan egoten dira kalifikatuta, erosotasunaren erabateko gabezia dela eta: inolako berokuntza-sistematik gabe, igogailurik gabe, egoera txarrean dauden altzariekin eta abar.

Etxebizitzarekin jarraituz, egoerak okerrera egiten du pertsonen erroldatzea ahalbidetzen ez zaienean, horrek dakartzan ondorio guztiekin; izan ere, dakigun moduan, erroldatu gabe dagoena ez da existitzen administrazio mailan. Ildo horretatik, hau izango litzateke gizarte-bazterketako egoerarik larrienetako bat: gizarte-zerbitzuak erroldatzearekin lotzen dira eta erroldatuta ez egoteak gizarte-zerbitzu eta prestazio sozialetara ez sartzea ekartzen du.

Hala eta guztiz ere, errolda zenbait prestaziotarako *sine qua non* baldintza den arren, ez da nahikoa. Alde batetik, erroldaren antzintasuna hartu behar da kontuan, urtebetetik hiru urtera igo baita Oinarrizko Errenta eskuratzeko baldintza, pertsonak errentamendu-kontratua edo berralokatzeko-kontratua duenean eta, bestetik, etxebizitza bakoitzeko bi hartzaileren gehieneko muga jarri da. Eskakizun horiek pertsona kopuru handia baztertu dute OE jasotzetik.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak sei hilabetetik hogeita hamar hilabetera igo du Gizarteratzeko Laguntzak eskatzeko erroldan erregistratuta egon beharreko denbora. Laguntza horien hartzaileak OE jasotzeko baldintzak betetzen ez zituzten pertsonak ziren. Horren

ondorioz, aurten arreta eskaini diegun pertsonetako askok datozen bi urteetan ezingo dute administrazioaren laguntza ekonomikorik jaso.

Beste arrazoi batzuen artean, hortik dator oztopo-lasterketaren ideia... Etxebizitzarekin lotuta oraingoan ere, ezin utz dezakegu aipatu gabe zenbait kasutan alokairuari eta beste batzuetan, gutxiagotan bada ere, hipotekari aurre ezin egiteagatik etxebizitza galtzeak sortzen dituen estutasuna eta frustrazioa.

Administrazio mailan, langabezia-egoera dela eta, “gerora agertutako irregulartasun” egoeran dagoen pertsona kopuruak gora egin du. Hau da, Gizarte Segurantzaren eskatutako kotizazioak ez edukitzeagatik eta lan-kontratu berria ez izateagatik lan-baimena berritu ezin izan dutenak. Hainbeste denbora dioxozko “paperak” eskuratzeko eta hain gutxi haiek galtzeko!

Guztiak egin dezake okerrera, ordea. Gaixo dauden pertsonen ari gara. Muturreko egoera larriak dira. Oinarrizko beharren estaldura desegokiaz ari gara; gehienetan, etxebizitzarekin eta dokumentazioarekin lotutako arazoekin eta sare soziofamiliarrik gabe gertatu ohi da. Testuinguru horretan gaixotasuna azaltzen denean, zaila da pobrezia eta gizarte-bazterketa handiagoko egoera irudikatzea.

Oztopo-lasterketa horretan, aurreko egoera askotan, profesionalek *babesgabetasun ikasiztat* jotzen dutena izaten dute pertsonen. Erantzuteko gaitasuna gutxitu egiten da eta horrek aurreikuspen negatiboak sorrarazten dizkiete; hori guztia dela eta, profesionalek energia eta inplikazio handiagoak eskaini behar izaten dituzte.

Egoera horretan zer egin dezakegun ikustean datza gakoa. Bi mailatako planteamendua litzateke. Bata Administrazio Publikoari bideratua, gizarteratzeaz hitz egiteak eta aldi berean gero eta neurri murriztaileagoak eta, beraz, gero eta baztertzailagoak hartzeak dakarren inkoherentzia salatuz (gizarteratzeko beharrezkoak diren gizarte-prestazioetarako sarrera zaildu/eragozten duten neurriak salatuz, alegia). Bestea, gertukoagoa, pertsonen eta taldeek auzo edo herri hobearen alde egin dezaketinari balioa emateko ekimenak bultzatuz, “beste mundu bat posiblea da” distantzia laburretara helaraziz; hau da, pertsonen eguneroko bizitza garatzen den eremuetara. Helburua baliabideak abian jartzean litzateke “diru jauna” “zaldun ahaltsu” izan ez dadin, “irabazi, irabazi” filosofiaren mendean pertsonen beren beharrei erantzuna topatu ahal diezaie. Ildo horren baitan dauden Denboraren Bankua eta Elkartasun Zerbitzuko Ikaskuntza ekimenak dira horren guztiaren erakusgarri.

Esaten duten krisia egonagatik ere, beste gizarte zerbitzu batzuk izan ditzakegu



Arabako HIESAren kontrako Batzordea.



Idatzi hau hausnarketa eta kezka pertsonal hutsaren zati da, adiskideen elkarrizketak eta oharrak baino beste oinarririk ez duena. Ziur asko ez du mundu guztiak partekatuko eta baliteke norbaiti ez gustatzea. Honekin kritika positiboa piztea, galderak planteatzea eta, ahal bada, hobetzeko abiapuntua topatzea baino ez dut bilatzen.

Gaur egun, krisiaren itzalpean, oro har, gizarte-zerbitzuen hondatze-prozesuan murgilduta gaude.

Administrazio publikoak lehiaketara ateratzen dituen proiektuetan elkarrekin eta/edo enpresek egiten duten eskaintza ekonomikoak hezkuntza-kalitatearen eta errentagarritasun sozialaren gainetik puntuatzen du, hau da, 100 puntutik 50 baino gehiago aurrekontuari dagozkio.

Hortaz, gizarte-laguntzaren merkaturatzerik handiena bizi dugu eta sektore horretan aberastasun-iturri berria ikusten duten "mertzenario profesionalei" (enpresa handiei) atek zabaltzen zaizkie; aireportuak, eraikinetako garbiketa-lanak, haur-egoitzak eta toxikomanoentzako zentroak irizpide berekin kudeatzen dituzten enpresei, hain zuzen. Irabazi asmoa duten enpresak dira, argi eta garbi funtzio sozialik betetzen ez dutenak eta haien helburua ez da ingurune bidezkoagoaren alde lan egitea lortzea. Finantza-kutxak loditzea eta, kasu honetan, babesgabetasun, tratu txar, bazterketa eta mendekotasun egoerekin espekulatzea dute azken xede. Argi baitago aurrekontuaren zati bat enpresek "industria-etekina" deitzen dutenera bideratzen dela. Hortaz, zuzena litzateke pobreenen edo zaurgarrienen arretaren industriaz hitz egiten dugula esatea.

Horrek langileen lan-baldintzen ezegonkortasunetik hasi eta pixkanaka adingabekoen, haien familien, pobreen, gaixo mentalen eta minusbaliatuen arretaren kalitatea gutxitzea ekartzen duten ondorioak eragiten ditu, instituzio mailako zabarkeria eta tratu txarreko egoeretara heldu arte, bulegoetan azpijokoa eginda eta zuzeneko esku-hartzean lan egiten dugunoi esku-hartze integrala eta prozesu mesedegarria bermatzeko beharrezkoak diren baliabiderik gabe utzita, guri eta familiei egoera iraunaraztera edo okertzera bultzatuz.

Alor horretan lan egiten dugun guztiok ezagutzen dugu aurrez aipatutakoa, baina publikoki salatzeke beldur gara, argi baitugu hala eginez gero, gure lanpostua arriskuan jarriko dugula.

Zenbat mendekotasun-balorazio berrikusten eta aldatzen dira “arin” izatera, baliabide faltagatik?

Ustez erakundeek lagundutako zenbat lagunek ez dituzte oinarrizko beharrak asebeteta? Zer lotura du horrek benetako beharrei erantzuteko baliabideen eta aurrekontuen murrizketarekin?

Pentsatzen dut gogoratzen ez ditudan beste hainbat egoera ere egongo direla, baina ziur dakidana da nolabait apurtu beharra dugula udal- eta foru-teknikarien, politikarien eta enpresa esleipendunen oniritzia edo justifikazioa alde duen asmo gaiztoko zirkulu horrekin.

Egoera horren aurrean, indarrez sortzen den bakarra beste mende batzuetako karitate klasikoaren erabilera eta modu zaharrak direla ikusten dugu, erlijio-ordenen edo mendeko EGKen babesean. Non geratu dira gizarte-eskubideak? Non herritarren eskubideak? Non gizarte-zerbitzuak ongizate-egoeraren laugarren oinarri gisa?

Puntu honetaraino nahiko argi ditut gauzak, baina zalantzan jartzen dut zein ote den gure eginkizuna langile garen aldetik eta non kokatzen ote garen eremu zail honetan; izan ere, azpikeria honetako exekututzaile hutsal gisa jarduten badugu, konplize bilakatuko gara halabeharrez.

Horregatik, badakit ez dela egoera eta sektore kontua soilik, epe luze eta ertainera ondorioak izango dituen joera baizik eta bazterketaren eta gizarte-marjinazioaren alor guztietara hedatu ahal izango dela pentsatzen dut.

Iritsi da ados jartzeko garaia. Alor honetan lan egiten dugun guztiok, baliabide horien onuradunak, elkarre-mugimendua, sentsibilizatutako banakoak eta zuzenean edo zeharka alor horietan lan egiten duten bestelako profesionalak.

Beste gizarte-zerbitzu batzuk izan ditzakegulako,
Arreta hobea izan dezakegulako,
Lan-baldintzak hobek izan ditzakegulako,

Esaten duten krisia egonagatik ere.

ASKATASUNAZ GABETZEKO ZIGORRA ETA GIZARTE BAZTERKETA

Por José M^a Loizaga Arnaiz. Comisión Anti SIDA de Álava.



1. GIZARTE BAZTERKETA ETA ESPETXEA ARABAN

Arabako Araba espetxe berrian eta Langraiz Okako espetxe zaharrean askatasunaz gabetzeko zigorra 700 gizonetzok eta 70 emakumezok betetzen dute gutxi gorabehera. 2011ko abenduaren 12an inauguratutako espetxe berriak 1.400 laguntzako edukiera du eta datozen hilabeteetan preso gehiago jasoko dituela aurrez ikus daiteke. Lurralde horretan biltzen dira Euskadiko espetxe-plaza gehienak. Preso horiek profil eta ezaugarri hauek dituzte¹⁷: 38 urteko batez besteko adina dute, % 92 gizonetza da, % 60k bizilekua Bizkaian finkatuta du, % 80 jabetzaren eta osasun publikoaren aurkako delituak egiteagatik kondenatuta dago, herena hainbat urtetatik Euskadin bizi den atzerritarra da, % 9 GIB-Hiesaz infektatuta dago, % 25ek nolabaiteko diagnosi psikiatrikoa du, presoen % 30 droga-mendekotasuneko tratamenduan egon da espetxean eta % 21 tratamenduan dago, % 10ek ez du familiaren edo gizartearen inolako laguntzarik eta % 85ek espetxean sartu aurretik ez zuen lanik eta horien hezkuntza edo prestakuntza maila nagusiki baxua da. Hau da, behar ugari dituzten pertsonak dira: hezkuntza, gizartea, osasuna, psikologia eta lan-munduan txertatzeko laguntza. Askatasunaz gabetzeko zigorrak ari garenean, bazterketari, aurreiritziei, isolamenduari, etiketei, gaixotasunei eta berriz erortzeari egiten diogu erreferentzia argi eta garbi. Baita egoera larri ere, hala nola gaixotasun metalak dituzten gaixoen ehuneko altuaren presentziari eta “ate birakariko pazienteen” fenomenoari (maiz ospitaleratzea behar duten gaixoak eta ospitaletik, egoitza-baliabideetara edo aterpeetara, espetxera edo kalera behin eta berriro ibiltzen direnak)¹⁸.

1978ko Espainiako Konstituzioa onartzean askatasunaz gabetzeko zigorrak berreziketara eta birgizarteratzera bideratuta zeudela finkatu zen. Espetxe-sistema demokratikoaren garapenerako oinarriak ezarri ziren, espetxe-zigorrak iraunaraziko ez zituena eta argi eta garbi pertsonak aldatzeko duten aukeretan eta gizartean berriro txertatzeko aukeretan oinarritutakoa. Hala eta guztiz ere, gizatasunezko irizpideetan, gatazken bakegintzan, ekitatean, elkartasunean, eragindako kaltearen konponketan, arau-hauslearen arreta integralean edo askatasunaz gabetzeko zigorra gainditzean oinarritutako justiziaren idealak partekatzen dituzten erakundeak, taldeak eta pertsonak dauden arren, XXI. mendean, espetxeen alorrean, berriro gizarteratzeko eta hezteko printzipio horiek urruntzeko asmo osoa dago. Argi

¹⁷ Datu propioak eta Barne Ministeriotik (www.mir.es) eta “Otro derecho penal es posible” taldeak (www.otroderechopenal.aldeasocial.org) lortutakoak.

¹⁸ D. Sestoft (“Delito y enfermedad mental, el momento de pasar a los hechos”, World Psychiatry, ed. gaztelaniaz, 2006, 4:2, 95.), patologia mentalak dituen preso kopuru handiari erreferentzia egiterakoan –pazienteek eta gizarteak onartu behar ez luketen gertakaria-, John Gunn-ek (“Criminal behaviour and mentaldisorder”, Br J Psychiatry 1977; 130: 317-329) ospitaletik kartzelara doan aktoreen ejertzitoez egindako deskribapena jasotzen du “ondoren etxean babesteko eta berriro hasteko behin eta berriro biraka dabilen aktoreen ejertzitoez bailitzan, kopuru handia horiei erantzuteko instalazio egokiak ez izateak justifikatzen duelako irudipena emanda”.

nabarmendu dugu makrokartzen eraikuntza, neurrigabeko kondenen inposaketa eta espetxearekiko alternatiboak diren baliabideen txertaketa falta. Aurrekontuak eta gizarte-laguntzak murriztu egin dira, baina espetxe berriaren kostua 116 milioi eurokoa izan da eta biztanleriaren aldetik Arabako bederatzigarren "udalerrria" bilakatuko da.

2. ASKATASUNAZ GABETUTAKO PERTSONAK: HAIEN ESKAERAK ETA ERRONKAK

Gurearen moduko elkarrearen oinarrizko erronkak hiru dira: a) askatasunaz gabetzeko zigorraren alternatibak defendatzea –duintasunagatik, eraginkortasunagatik eta justiziagatik–, erregimen irekiaren eta baldintzapeko askatasunaren sustapenean zehaztuak; b) egun dauden arretarako baliabideak mantentzeko eta presoan profilari jarraiki beharrezkoak direnak txertatzeko adinako finantzaketa publikoa erreklamatzeko eta c) espetxeetako eskuduntzak euskal administrazioari transferitzeko eskatzea.

Espetxean bisitatutako askatasunaz gabetutako presoan eta gure baliabideetan arreta eskaintzen diegun pertsonen eskaeren zirriborroa egiteko aukera ematen badigute, hauek dira egindako oinarrizko eskaerak:

- 1) Komunitatean behar adina harrera-plaza (pisuak, zentroak) izatea, bigarren graduako baimenez gozatzeko edo erregimen irekira edo baldintzapeko askatasunera iristeko.
- 2) Patologia fisiko eta mental larriak dituzten presoak espetxetik ateratzeko baliabide espezializatua (zentroa) sortzea.
- 3) Espetxeratutako eta askatutako pertsonen eta, bereziki, gazteei, droga-mendekotasuna dutenei eta patologia mentalak dituztenei zuzendutako hezkuntza-programak, programa terapeutikoak, lanerako programak, prestakuntza-programak eta tutoretzapeko edo babestutako enplegu-programak bultzatzea.
- 4) Preso guztiek oinarrizko beharrei aurre egitea ahalbidetuko dieten gutxieneko laguntza ekonomikoak izan ditzaten eskatzea edo, kasuan kasu, ordaindutako helmuga edo jarduera izatea. Espetxetik atera eta lehenengo egunetik izan behar lukete OE edo antzeko laguntza jasotzeko aukera. Oinarrizko eskubideak defendatzea, esaterako: espetxean erroldatuta egotea, askatasunaz gabetutako denbora kontuan hartzea espetxetik ateratakoan gizarte-laguntzak jasotzeko, espetxera doan garraio publikoa egotea eta abar.
- 5) Espetxe-zigorra –hirugarren graduaren gutxienez– familiaren bizilekutik hurbil betetzea eta, ildo horretatik, Bilbon GZ –erregimen irekiarekin zigortutakoentzako gizarteratze zentroa– eraikitzea.

Emakumea, immigrazioa, artea: ikusezinaren ikusezinaren ikusezina...

Helena González Sáez (GARABATAZ). Zubietxe Arte Tailerreko Arduraduna.



XX. mendearen bigarren erdira arte, emakumeek egunerokoan eta etxe giroan egiten zuten sorkuntza artistikoa dekorazioan oinarritutako entretenimendutzat hartzen zen, balioetatik urrun zegoen denborapasa gisa. Aisialdirako denbora asko zuten emakume burges eta dirudunek bakarrik egin zezaketen jarduera zen. Haientzat, musikan trebakuntza eta pintura naturalistaren arloan oinarritzko ezagutzak izatea haien kokapen sozialaren apaingarrian distira bat gehiago zen. Modu antzekoan pentsatzen jarraitzen dugu. Ulertzen dugu egunerokotasunaren barruan gordetako praktika artistikoak espresioaren eta sormenaren gisako benetako beharrak ase ditzakeela, baina bide luzea dugu oraindik ulertzeko egunerokotasunak berak eskaintzen dituela gure egunerokotasuna barruan sartzeko ñabardurak, horrela, egunerokotasun hori bizi dugun errealitatea transformatzeko eguneroko aukera bihur dadin.



Diskurtso ezberdin bat egitea ikaragarritzko lana da; izan ere, urte askotan barneratu baitugu hizkuntzak berak gure aurka egunero egin duen utilitarismo kulturala, emakumeak beloekin estaliz eta balioa kentzeko eta ikusezin bihurtzeko beloak erabiliz. Badirudi ekoizpenean oinarritutako eskema kultural horiei men egitea naturala dela, baina kultura guztietan gertatzen den mendetasun mingarria da. Emakumeek gure sormen-prozesuen intimitatean sortzen ditugun mezuek hitzez azaltzeko zailak diren gai korapilatsuen pertzepzio sakona -gorputzez gorputzazaltzen dute: zantzuak, askotan gorputzean hitz bihurtzera iristeko bide sinbolikorik aurkitzen ez duten ezinegonak.

Malikaren marrazkiak:
"Kaskadaren pasaia"

Gaur egungo diskurtso kulturala gizakion jatorria adieraztetik oso urrun dago eta ematen duen mezuak generoari, feminismoari eta ekofeminismoari buruzko diskurtsoak bazterrean uzten ditu. Ikusezintasunen joko honetan, badirudi kulturak geruza opaku, hertsia eta hezigaitzak hartzen dituela gero eta utilitarismo hurbilago bati lotutakoa ez den guztiarekiko. Era berean, edozein sorkuntza artistikok finantzen arloko zerbaiti lotua egon behar du izaera legitimoa izateko. Kulturak ikusezin bihurtzen du arteak dakarren lanaren eguneroko balioa, arinkeria bihurtzen du, eta kulturaren goi mailan haien argumentu propioak berresten dituzten artelanak eta artistak jartzen ditu. Ikusezin bihurtze hori emakumeak ikusezin bihurtzearen antzekoa da: barregarri uzten gaituzte, lehentasunezko eremu kulturaletan edozein desirari eusteko gai diren emakumeak erakutsiz, kontsumitutakoak eta kontsumitzaile sutuak, edertasun bakarra eta betierekoa izan eta zahartzen ez direnak, gizarteko harremanak gizonek bezala lan egin eta gutxiago kobratzera murriztuko balira bezala erakutsiz, etxeko giroa eta sedukzio sexuala nabarmenduz.

Horrek guztiak helburuaren justifikazioa bere baitan daraman edozein ekintza edo konturekiko izu kulturala agerian uzten du; sarrerak saltzeko balio ez duen guztiarekiko izua; emakumeak berez duen gozatzeko independentearen plus horri lotuta haren nortasuna eraikitzeko balio duen edozein jarduera edo egoerarekiko izua. Zorrik gabe bizitzeko nahiarekiko izu kulturala; erotismo sozial ez-produktibo desiragarri eta atsegin bat izateari izua: kalitatezko giza harremanek oinarrian dutenarekiko izua, alegia.

Egoera honen erdian, konplexua da emakumea izan eta identifikazio independentea erakustea, baldin eta bat bakarrik badago eta gure hizkuntza jakin gabe gurean bizi bada, baliabide ekonomiko eta sare sozialik gabe eta immigrazioaren kalte psikikoa muturreko egoeretan jasaten bada. Hala nahi eta ahal izanez gero, pixkanaka identifikazio independentea sortzeko eta lotura mingarrienak alde batera uzteko, zirkunstantzia eta tratamendu bereziak behar dira. Litekeena da modu naturalean gertatzea edo kontzientziaren eta hitzak ahoskatzearen hormak oharkabeaz zeharkatuz gertatzea, lapsus baten gisan.



Khelifiaren irudia:
"Txori Emakumea, arraina, hirian"

Gune atsegin, informal eta babestu batean pedagogikoa ez den estilo batean sorkuntza artistikoa egiteko tokia eta denbora izateak giro segurua, baltsamikoa eta mesedegarria eskaintzen du lan hauetarako. Gure sorkuntzari lotutako desioa jokoan jarriz seguru sentituko garen toki bat, giro goxo eta errespetuzkoan. Barruko gauzak baliotsuak direla sentiarazten duen toki bat, askatasunez pentsatzeko eta sentitzeko.



Basiraren irudia:
"Siriako emakumea"

Lehen ondorioa esperimentatzeko eta ezagutzeko baimen subjektibo bat izatea da eta horiek ezezagunak dira guretzat. Askatasun subjektiboari traba egiten dion guztia aldi baterako baztertuz, gure alde egiten duen eguneratuz. Aske gara sententzioak eta esanahiak aztertzeko, denbora subjektibo horri kanpotik baldintzak jarri gabe. Une bakoitzean jasan dezakegunaren arabera. Gauza horiek guztiak, beti, modu islatzailean azaltzen dira: gure begien aurrean, alegia. Horiek denak lanetan jasoak gelditzen dira. Hauxe da sorkuntza artistikoa. Sorkuntza artistikoaren gorabeherak dohainarekin, opariarekin, ezohikoa adieraztearekin, gizaki gisa dugun oinarriarekin lotutako toki sinboliko horietan barrena ibiltzen dira.

Gizonen eta emakumeen artean, eskubideen berdintasunak eta parekidetasunak gizarte matristiko bat sortzeko aukera emango duen interpretazio sinboliko batean moldatu behar dute eta gizarte horrek femeninoa dena iruditzen onartu eta duindu behar du, benetako diskurtso bateratu bat sortzeko.



Parte Hartuz Elkartea.

Dagoeneko urte batzuetatik hona adierazitakoaren ildotik, laneko ezegonkortasun handiak eta harreman-sare ahulek bereizgarri egindako ezegonkortasun sozialak gero eta jende gehiagori eragiten diola ikusi dugu. Hori horrela, *egonkorren desestabilizazioa* gertatuko da R. Castel-ek dioen moduan, behar bezala integratuta zeudenak (edo hala zeudela uste zutenak) ezegonkortasunean sartuko baitira. Ikuspegi horretatik, inguruari begirada bat botatzea nahikoa da gizarte bazterketako eta/edo pobrezia egoeran gero eta jende gehiago dagoela ikusteko, aldez aurreko bizi-ibilbidea (prestakuntza, familia...) albo batera utzita. Familiaren laguntzak soilik (badagoen kasuetan) makillatzen ditu errealitate horiek.

Ikerketaren eta partaidetzari eta demokrazia parte-hartzaileari buruzko prestakuntzaren alorretik ezinbestekotzat jotzen dugu **partaidetzaren eta gizarteratzearen kontzeptuak modu bereiztezinean batzea**; izan ere, lehena gizarteratze-prozesuetan bermatu beharreko beharrezko baldintza da, eskubideen ikuspegitik.

Hori horrela, bazterketa herritartasunaren ukapentzat jotzen dugu edo gauza bera dena, eskubide zibilez, politikoez eta sozialez gozatzeko eragozpen gisa. Herritarren partaidetzaren kontzeptuan luzatzea xede ez dugun arren, zerrrenda ditzagun, gure ustez, horrekin lotzen diren zenbait alderdi:

- Eraldaketa soziala
- Diskurtso guztiak barne hartzea, pluraltasuna
- Boterearen banaketa
- Harreman mota berriak
- Erabakiak partekatuta hartzea
- Bizi-baldintzak hobetzea
- Eskubideak
- Deliberazioa
- Herritartasun osoa
- Gatazkarako aukera
- Prozesu pedagogikoa
- Tresna
- ...

Hemen uztartu nahi ditugun bi kontzeptuen analisi labur eta azalekoak gutxienez bi gauza baieztatzea ahalbidetuko digu:

Boterea hain desberdin banatuta dagoen gizartean, partaidetzak aldeak murrizteko balio beharko luke. Bestela esanda, partaidetza-prozesuek botere gehiegi dutenei kendu eta gutxiegi dutenei emateko balio beharko lukete.

Gizarte-bazterkeriaren moduko botere-harremanak ikuspegi gutxik jartzen ditu ezbaian horren era sakonean. Pertsonen bizi-baldintza errealak kontuan hartu gabe partaidetzaz jardutea diskurtso hutsa sortzea dela uste dugu, kontzeptu handiekin apaindu daitekeena, gero eta zaurgarriagoak eta ziurgabetasun handiagoa duten gizarte-sektoreen egoera konplexua ezkutatzeko balio dezaketenak.

Horregatik da hain garrantzitsua partaidetza sozialaren eta politikoaren irakurketa gizarteratzearen ikuspegitik egitea. Planteamendu horretan, ezinbestekoa dugu partaidetzaren ikuspegitik gure gain hartzea **herritar guztien parte hartzeko eskubidea bermatzeko erronka, horrela, partaidetzaren kalitatea hobetuta**. Gure egiteko nagusia (ardurutzen gaituen lan alorretik) ondorengo alderdiei buruz modu kolektiboan ezagutza ateratzea, eraikitzea eta egituratzea da:

- Desberdintasunen arrazoiak, oro har, eta partaidetzaren alorrean bereziki (zein diren egiturazkoak eta zein gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonenak espezifikoki).
- Erresistentzia-mekanismoak pobreziako eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen partaidetzaren aurrean.
- Pobreziako eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen partaidetza gure eguneroko lanean kontuan ez hartzearen ondorioak.
- Mekanismoak, formulak, planteamenduak, metodologiak, ekintzak eta abar. Benetako partaidetzarako erresistentziak eta oztopoak gainditzea ahalbidetuko digutenak.
- Partaidetzak gure lanean (partaidetza jasotzen duten eta ez duten prozesuen arteko aldea), pertsonengan eta komunitateetan dituen etekinak.



Aurreko orrialdeetan erakundeek eguneroko zereginetan topatzen dituzten egoera zehatzak eta orokorrak ezagutu ahal izan ditugu; hortaz, egun Euskal Autonomia Erkidegoan topa daitezkeen pobrezia eta gizarte-bazterketako egoeren zerrenda egin daiteke eta, era berean, egoera horiei aurre egiteko eta konpontzeko eskaintzen diren erantzun moten zerrenda egin daiteke.

Gure erakundeetako artikuluetan ikus dezakegunez, ikuspegi desberdinetatik hitz egiten den arren, egun zaugarritasun-egoera handiagoan dauden hainbat kolektibo daude eta horiek aipatzea beharrezkoa dela uste dugu. Beste behin, pobrezia eta gizarte-bazterketako kasuak larriagotzen diren egoera guztietan bezala, emakumeek eta haurrek aurre egin behar dien prekarizazioaz hitz egin behar dugu; oro har, zaugarritasun handiagoan dauden kolektiboak dira eta krisi sozio-ekonomiko orokorraren egoeran, nahiz eta horien eskubide asko finkatu eta bermatu diren, arreta berezia eskaini behar diegu eskubide sozialak galdu ez ditzaten. Era berean, askatasuna kendutako pertsonak oso egoera zaugarrian aurkitzen dira; horien arazo zehatzak hainbat artikulutan ezagutzeko aukera izan dugu. Azkenik, gure komunitateko atzeritarrek jasaten duten zaugarritasun handiagoko egoera azpimarratu behar dugu eta, bereziki, haien administrazio-egoera argituta ez dagoenena. Egoera horretan, gaizki pasatzen ari den gizartearen iritzi orokorrak gutxien duena, egoera ahulenean dagoena eta egoera horretatik irteerako baliabide gutxien dituen kriminalizatzeko joera duela ikusi ohi dugu; iritzi hori komunikabideetako tratamenduan ere ikus dezakegu.

Azken urteotan, hirugarren sektoreko erakundeetatik eta administrazio publikoetatik pobrezia eta gizarte-bazterketako egoerei irtenbidea emateko hainbat erantzun ematen ahalegindu gara. Planteatzen joan garen helburuak bete diren arren, gure ustez, oraindik ere lan handia dugu aurrean eta lanean jarraitu behar dugu gure gizartea gero eta irekiagoa, toleranteagoa eta solidarioagoa izan dadin lortzeko; azken batean, benetan inklusiboa den gizarte bilakatu dadin.

Bestalde, egungo egoerak, irtenbideen bilaketa bultzatzetik urrun, pixkanaka pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka ezarritako helburuetatik gehiago urruntzen gaituela dirudi, datuak ikusita ondoriozta dezakegun moduan¹⁹. Hala eta guztiz ere, Euskadin hirugarren sektorea, gaur inoiz baino gehiago, sendoa dela eta elkartuta dagoela aitortu behar dugu. Hori dela eta, pertsonen gizarteratzea lortzeko bete behar dugun lanean, hori lortzeko aurre egin beharreko hainbat erronka topatuko dugu.

¹⁹ Aurkezpenaren atala ikusi.

Lehenik eta behin, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borroka egiten duten erakunde sozialen sare gisa gure gain hartu behar dugun zereginetako bat pobrezia eta gizarte-bazterketako egoerak **ezagutzea** da **ikustarazi** eta **salatzeko** asmoz; ildo horretatik, gure eginkizunetako bat pertsonen **eskubideak** errespetatzen direla **bermatzea** izango da. Era berean, pertsona guztien **partaidetza** eta, bereziki, pobrezia- eta bazterketa-egoeran daudenena eraginkorra izatea lortu behar dugu; izan ere, gure ustez, partaidetza gizakiaren beharra denez²⁰, eskubidea ere bada eta, behar guztiak bezalaxe lehenengo eta behin, eguneroko bizitzan asebate behar da.

Azkenik, aurreko erronkak EAPN Euskadi (erakundearen sare) saretik **eraldaketa sozialaren** alde lan egiteko oinarri gisa garatu behar dira; izan ere, egiaztatu dugun moduan, egungo ereduak behar ditugun erantzunak eskaintzen dizkigu. Hirugarren Sektoreak lan bateratua egin behar du gizarte-ekintzaren ereduak aldatu ahal izateko. Horren bidez, gizartea eredu iraunkorragoetara bideratu behar da eta prozesu horren zati bat haxe izango da: **beste gizarte mailako esku-hartze mota bat diseinatu behar da** orain arte erabili ditugunak bete eta irtenbide osatuagoak eskaini ahal izateko.

²⁰ Partaidetza benetakoa izan dadin, behar bezala asebetetzen den beharra izan dadin, prozesu errepikari (ez une batean) eta agortezina eduki, izan eta erlazionatu behar du, eta hauetarako gai izango da: eraldatu (existentzia-baldintzak hobetzeko aldatzea), hausnartu (epe luzerako efektu eta inpaktuaren pentsatuta), inplikatu (kolektibo eta subjektu kopuru ahalik eta handiena, bereziki, gizarte-egoera ahulenean daudenak), artikulatu (eragile, kolektibo eta lurraldeak elkarrekiko harremanetan jartzea), eraiki (batera sortzea), ezagutu (errealitatea, baliabideak eta horien potentzialtasunak), ikasi (elkarrizketan, adostasunean eta elkartasunean heztean), komunikatu eta elkar komunikatu (parekoekin eta parekoak ez direnekin), gaitu (edozein subjektu hel daiteke gaitasun politikoetara), saritu (asebetetasun- eta baliagarritasun-sentimendua sortuz) eta eskatu (partaidetza-prozesuak eskubide gisa). Hemendik hartuta: "LA PARTICIPACIÓN COMO PROCESO DE TRANSFORMACIÓN SOCIAL: LA ESTRATEGIA RELACIONAL EN EL GOBIERNO LOCAL" Julio Alguacil Gomez, Madrilgo Carlos III Unibertsitatea.

